

2002ko martxoaren 21a • XXII. urtea



Kalitatea hizpide Alkaia

04

Apirilaren 11n «Kalitatea 2002 zabalkunderako Nafarroako Plana»ren berri emanen da Alkaia-gako Cederna-Garaluren egoitzan. Jose Otxoarekin izan gara.



Paxaka txapelak berriak

28

Iruritako Zabaleta-Ripa-Santxotena suertatu dira irabazle III. Paxaka txapelketan. Finalean 9-7 irabazi zieten Oizko Mendiola anaiei eta Mindegari.

03

Ciberkafea Elgorriagan



ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA



- ➔ Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- ➔ Koloreak: xuria **marroia** **berdea** eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- ➔ 15 urteko esperientzia
- ➔ Kalidade eta prezio arteko erlazorik hoberena



**GIZAKIAK BETIDANIK JAKIN
DU SILOTITEREKin
BILTZEA DELA
KONTSERBATZEKO
MODURIK
HOBERENA**



AROS - BERRI, S.A.

NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepidea, 54. km.a • Tel: 948 581 021 - 948 580 258 • Fax: 948452103 • 31730 **IRURITA**



VITALICIO

ASEGURUAK

**Zabaltze prozesu garrantzitsu batengatik,
Vitalicio Aseguruak aukeratzen du:
ELIZONDOn**

Bulego Komertzialeko Arduraduna

***Irabazi
nabi
baduzu,
zatoz
talderik
onenera.***

Eskaintzen dugu:

- Garapen profesionala sektoreko konpainia entzutetsuenetako batean.
 - Soldata ederra:
- FINKOA + ALDAGARRIA**
- Formakuntza Plan sakona, pertsonalizatua eta etengabea.

Konpainia

- 156.000.000.000 pezetatik goitiko negozio-bolumena.
- Estatu eta Europa mailan konpainia nagusietako bat.

Baldintzak

- 25 urtetik goitikoak
- Komunikatzeko ekimena eta gaitasuna
- Komertziorako zaletasuna
- Esperientzia ez da nahitanahiezkoka.
- Kartararen ekarpena baloratuko da.

Funtzioak

- Finantza eta arrisku pertsonal eta orokorreko buruzko aholkularitza.
- Operazio komertzialen adostea, negoziazioa eta itxiera.
- Salmenta ondoko arreta zerbitzua bezeroari.

Elkarrizketa eskatzeko deitu 948.203.284/278ra eta Txema Elizaldetaz galdetu.

**ZURE LANBIDEA ALDATZEA PENTSATU EZ BADUZU ERE ESKAINTZA HAU INTERES-
GARRIA IZATEN AHAL DA ZURETZAT. JAR ZAITEZ HARREMANEAN GUREKIN.**

Prozesu guzian konfidentzialtasun osoa segurtatzen dugu

DATUAK...

• «Negoziorako ideiak» izeneko jardunaldiak antolatu zituzten Cederna-Garalur eta CEINek (Europako Enpresa Berrikuntzarako Zentrua) Doneztebeko Juansenean. Helburua Nafarroako emakumeak lan munduan sartzea da, enpresa berriak sortzeko ideiak, aholkuak eta laguntza eskainiz.

• Eva Martinek Elgorriagako Hilarion ostatuan paratu duen ciberkafea da autoenplegua sustatzeko solasaldi horietako lehendabiziko frutua.



Eva MARTIN IBARRA *Ciberkafeko arduraduna*

KARMELE TOLOSA

«Bokadilloa edo kafea hartu bitartean Internet-en sartzen ahal da bezeroa»

Karmele TOLOSA

Hiri haundietan ezaguna den arren, inguru honetan ideia berria da ciberkafea. Nola gogoratu zitzaizun honelako negozioa paratzea?

Ordenagailuen mundua aunitz gusatzatzen zait, eta hori da hasiera. Pentsatu nuen ideia ona izanen zela ordenagailua ez dutenei aukera ematea, Internet-en sartu, jostatu, dokumentuak atera... edozein gauza egiteko ordenagailuen bidez.

Batez ere bertako jendearendako bideratu duzu hau edo turistei begira ere bai?

Bertako jendean pentsatuz egina da, baina turistak ere etortzen badira hobe. Dena den, ez da zonalde turistiko haundi edo masiboa, beraz hasieran hemengo jendearendako da. **CEIN eta Cederna bezalako erakundeek honelako inizatibak bultzatzen dituzte. Beraien laguntza izan duzu edo zure kontura egin duzu?**

Laguntza izan dut, bai. Juansenean antolatu zen jardunaldi batzuetan izan nintzen, hemen autoenplegua egiteko zer ideia berri ateratzen ahal zi-

«30 urte inguruko jendeak erabiltzen du ordenagailua, baina 15 urtekoek eskolako lanetarako»

ren ikasteko. Horien artean ciberkafea atera zen. Duela bi urteko kontua da hori eta nik alde batera utzi nuen, orduan lan egiten nuen. Baina lanik gabe gelditu nintzenean Cedernara jo nuen eta beraien bidez CEIN-era, laguntzak eskatzeko eta enpresa bideratzeko.

Kokapenari dagokionez, lokala errentan hartu duzu?

Bai, Hilarion-eko beheitiko solairua errentan hartua dut. Ostatua zena ez zuten sobera erabilia eta errentan emanen ote zuen galdetu nion nagusiari, eta inolako problemarik ez zuen paratu.

Nola antolatua duzu lokala: ostatu bezala funtzionatzen du, ostatua eta ordenagailua nahasian, ikastaroak ematen dituzu...?

Honek ostatu arrunt batek bezala funtzionatzen du. Gero, badira ordenagailuak, eta bertze edozein makina

bezalakoak dira: nahi duenak erabiltzen ahal ditu eta Internet-en sartzen da. Bertzenaz, bokadilloak, pintxoak, plater konbinatuak, kafea, garga- gardoak, edozer hartzen ahal duzu.

Kuriosoa da, Elgorriaga, herri tiki batean, honelako zerbitzua antolatzea. Doneztebetik eta inguruko herrietatik hurbiltzen da jende-rik?

Bai, pixkanaka hasi da. Oraindik ez da sobera ezaguna, igual ez naiz sobera mugitu, baina pixkanaka hasia da: Doneztebetik, Zubietatik, Iturenetik.

Zer gisako jendeak erabiltzen du ciberkafea; gazteak, adinekoak...?

Gehien bat 30 urte inguruko jendea izaten da eta gero eskolako lanak egiteko hamabortz bat urteko neska- mutilak. Orokorrean jende gaztea da.

Eta hemengo jubilatutako oso marxosoak direla kontuan hartuz, eskaintzaren bat egitea pentsatu duzu?

Bai, orain Internet-en ibiltzen ikaste-ko ikastaro batzuk prestatzen ari naiz eta Arkupeak elkarteari eskainiko diot eta ikusiko dugu onartzen duen.



Kalitatea hobetzeko azken teknikak, lehenik norbere lanpostua –mahaia, mostradorea...– antolatuz hasten dira.

Apirilaren 11n, ortzeguna, arratsaldeko 17:00etatik aitzinera «Kalitatea 2002 zabalkunderako Nafarroako Plana» egitasmoaren berri emanen dute solasaldien bidez AIN, CETENASA eta Nafarroa Kalitaterako Fundazioa erakundeek Lesakako Alkaiaga industrialdean Cederna Garalur-ek duen egoitzan. Kudeaketa egokiaren bitartez bere enpresaren, udaletxearen edo ikastetxearen kalitatea eta konpetibitatea hobetu nahi dutenei zuzenduak dira Nafarroako Gobernuak babestu eta Berako Udalaren, Ttipi-ttapa Fundazioaren eta Cederna-Garalur-en laguntza izanen duten solasaldi hauek.

ENPRESA, UDAL ZERBITZU ETA IKASTETXEEI ZUZENDUAK

Kalitatea eta konpetitibitateari buruzko solasaldiak Alkaiagan

Aitor AROTZENA


Irabazi asmorik gabeko erakundea da Nafarroa Kalitaterako Fundazioa, entitate independenteek kudeatua. Beraien asmoa, aurren Nafarroa osoan «Kalitatea 2002 zabalkunderako Nafarroako Plana»ren berri zabaltzea da. Izan ere, Jose Otxoa Berganza, Nafarroa Kalitaterako Fundazioko zuzendariaren erranetan, «*Nafarroa Iruñea baino hagitzeh gehiago da eta plan honen berri borts eskualdetan emanen dugu: Bortzirietan ez ezik, Tuteran, Lizarran, Azkoi-en-Peraltan eta Altsasun ere izanen gara. Kalitatea neurtzen duten enpresa pribatuentzat ez da errentagarria leku hauetara mugitzea eta dena Iruñean egiten dute. Guk ez dugu irabazi asmorik eta Nafarroako Gobernuaren la-*

guntzarekin, Nafarroa osoan hedatu nahi dugu kalitatearen erranahia». Horretarako izanen dira, bertzeak bertze, apirilaren 11n Alkaiagako industrialdean eskainiko dituzten solasaldiak: Nafarroako Gobernuak konpetibitatea hobetzeko aurren emanen dituen laguntzak; Kalitatea 2002 zabalkunderako Nafarroako Planaren xehetasunak; Kudeaketa ereduak eta tresnak zein diren eta zertarako baliu duten edo Kudeaketa Plan egoki batekin lan egiteko Oinarrizko elementuen berri eskainiko zaie agertzen direnei, beraiek planteatzen ahal dituzten galdera eta zalantzei erantzuteaz gain. Solasaldi hauetara agertze-ko sarrera doan izanen da, baina hori bai, lekua mugatua izanen denez, joateko asmoa dutenek Cederna Ga-

ralur-en baieztatzea (Tel.: 948 625122 –Begoña Iparragirre; e-posta: bidasoa.admon@cederna.es eskatzen dute antolatzaileek.

URTEKO ENPRESA PLANA ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN LAGUNTZAK

Bertzeak bertze, AIN erakundeko ordezkariak urteko enpresak plan bat nola egiten den azalduko du modu xume eta ulergarrian. Izan ere, Jose Otxoak dioenez, «*edozein enpresatan eguneroko lanak jaten zaitu eta ez duzu sikiera etorkizun hurbila planifikatzeko modurik. Honela, aunitan konturatu egin gabe lantegiak porrot egiten du eta ixtera behartua zauden».* Modu berean, Nafarroako Gobernuak konpetibitatea hobetzeko aur-



Jose OTXOA *Nafarroa Kalitaterako Fundazioa*

rretara emanak diren enpresa aunitz badira, Aenor, Bureau Veritas... eta gero, egitan, beraien produktua hobetzeko eta konpetitiboa izateko ez erabili. Eta badira, inolako ziurtagirik behar edo nahi ez dutenak eta kalitate handiko produktua eskaintzen dutenak. «ISO 9000 daukat» erratea edo «ISO 9000 erabiltzen dut» erratea ez da gauza bera. Gidatzeko baimena bezala da: diru bat ordaindu eta karneta ateratzera joaten ahal zara edo egitan gidatzen ikastera joaten ahal zara.

daude, baina funtsean, lan-tokia ongi antolatu behar da, eraginkorragoak izateko. Horigure aiton-amonen garaian ere egiten zen, lan aunitz eginez, norbere intuizioarekin eta zentzuz jokatzuz. Baina gaur egun, ongi funtzionatzen duten enpresak, lantegiak... ikusi egiten dira eta zergatik funtzionatzen duten ongi ikusten da. Autonomia ezberdinetan sektore guzietako esperientziak elkartrukatu egiten dira... Adibide gisara komertzioa paratzen dugu aunitzatan: hipermerkatu eta superfizie handien aitzinean denda ttikiek etorkizunik ez dutela eta negar egiten dute. Baina zer da egin behar dutena? Modernizatu eta konpetitiboa goak izaten saiatu. Bere sektorea topatu eta hor kalitateko produktua eskaini. Zer egin du hemen Martikok? Sektore murrizt batean kalidadeko produktua lortu eta merkatuan konpetitu.

“Ez da gauza bera kalitate ziurtagiri bat izatea edo konpetitiboa izateko erabiltzea”

Zer da eta nola neurtzen ahal da enpresa baten edo ikastetxe baten kalitatea?

Kalitatea aunitz aldatzen den kontzeptua da, abiadura handian gainera. Enpresek, udalletxeek edo ikastetxeek ka-

lidade ziurtagiriak nahi izaten dituzte, ISO 9000 dela, 5 Sigma dela... ziurtagiri klase aunitz badira. Enpresari batek bi milioi pezeta gastatzen ahal ditu honelako ziurtagiri bat lortzeko, ho-

Kalitate ziurtagiriekin gauza bera gertatzen da.

Eta zer egiten ahal da enpresa bateko kalitatea hobetzeko?

Horretarako modu aunitz

ten emanen dituen laguntzen berri emanen da. «*Orain arte —dio Jose Otxoa— enpresa handiei ematen zizaien laguntzak, dirua zutenei. Aurtun, ordea, dirulaguntza ez dutenei emanen zaie. Nafarroako Gobernuak enpresa ttiki eta ertain guztiak lagunduko ditu*».

IKASTETXEETAN ERE KALITATEA ZER DEN ERAKUTSI BEHAR DA

Nafarroa Kalidaderako Fundazioa inguru honetako ikastetxeekin ere harremanean jarri da, kalitatearen kontzeptua ikasleei helarazteko. Helburua, ikasleak Lanbide Heziketatik edo Unibertsitatek ateratzean kalidadearen kontzeptua ongi barnertua izatea da. Nafarroa Kalidaderako Fundazioko zuzendariaren arabera, «ikasketak utzi eta lan mundura sartzen denerako kalidadea zer den jakin behar du ikasleak, finean etorkizuneko langileak. «*Kalitatearen kontua zer den ongi jakinda aterara behar da ikaslea lan mundura eta horrek problema aunitz sortzen ditu, hagitz aldakorra delako. Institutuek eta bertz ikastetxeek kalidadearen bidetik jo behar dute, gauzak ongi egin eta beti hobetzen joan, izan ere atzo balio zuenak eta ongi zegoenak gaur igual ez du balio*».

KALITATEAREN LETRA-ZOPA

«*Kalitate hitzari beldur handia zaio, baina kalitatea ez da konpetitiboa izatea bertzerik, eta kitto! Horregatik beldurra kendu egin behar zaio kalitate kontuei*». Hone-l mintzo da Jose Otxoa Berganza. Bera, nolabait, kalitatea saltzera joaten da enpresa, udalaxe edo ikastetxeetara, baina mahaiaren bertze aldean dagoenak tutik ere ez ulertzea normala dela iruditzen zaio. «*Ni ere mahaiaren bertze aldean egona naiz, Funveran lan egin bainuen. ISO 9000 lortzeko lan izugarria egin eta bihamonean hori aski ez dela eta ISO 14000 behar dela erraten dizute. 'Nola? Zer da letra-zopa hau?' galde-tzen diozu zure buruari*». Hain zuzen, hori argitzea izanen da Otxoaren lana apirilaren 11ko solasal-



«*Kalitatea ez da konpetitiboa izatea bertzerik*».

dian. AENOR, ISO, FQM, 5 SIGMA... Horrenbertze letra artean jendea nahasi bertzerik ez da egiten eta modu ximplean bakoitza zer den azaltzen saiatuko da Jose Otxoa Berganza. «*Adibidez, 5 Sigma gauregun modan dagoen kalidade ziurtagiria da. Lantegia antolatzeko modu errex bat bertzerik ez da, japorriarra. Bortz arlotan*

banatzen da enpresa eta lehenbizikoa norbere lantokia da: lan egiten duzun mahaia ongi antolatu duzu? Egitan paper guztiak behar dituzu? Boli-grafoa modu eskuragarrian duzu eta beti leku berean? Beharrezkoa ez dena bota, egunero behar duzuna eskura eduk... eta zure mahaitik hasiz enpresa guzira hedatu. Errexa da».

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxel-torena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Osasunbideko deialdiei buruz

Berriki Nafarroako Aldizkari Ofizialeanhainbat lanpostu merezimendu-lehiaketa eta lekualdatze bitartez betetzeko deialdiak argitaratu dira. Horien artean, destinoa eremu euskaldunetan duten mediku, pediatra, hezitzaile, OLT/EDU eta administrazio laguntzaileen lanpostuak daude.

Euskararen ezagutzari eta balorazioari dagokionez, deialdi hauek uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretuak ezarritakoa betetzen dute. Bere garaian dekretu honekiko desadostasuna agertu genuen, eta kontrako hellegitea jarri, kasu honetan egin dugun bezalaxe.

Deialdi hauek (baita dekretuak berak ere) eremu euskalduneko herritarren hizkuntza eskubideak urratzen dituzte, izan ere, "hiritar guztiek, administrazio publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute". (...)

Eremu euskaldunari buruz ari garela eta bertan euskara hizkuntza ofiziala dela kontuan harturik, ez dakigu zein irizpidetan oinarritu den Nafarroako Gobernua Lesakako herritar batek mediku euskalduna izateko eskubidea duela ezartzeko, baina, aldiz, Leitzaiko herritar bati eskubide hori ukatzeko; Etxarri-Aranatzeko herritar batek pediatra euskalduna izateko eskubidea duela ezartzeko, baina, aldiz, Elizondoeko herritar bati eskubide hori ukatzeko; etab.

Deialdi hauen arabera, eremu euskalduneko lanpostu batzuk betetzeko euskaraz jakitea derrigorrezkoa da, eta gainera koetan merezimendu kualifikatua da:

a) Euskaraz jakitea derrigorrezkoa denean

203/2001 Foru Dekretua argitaratu zen arte, EGA izatea edo maila bereko proba gainditzea eskatzen zen.

Aldiz, aipatu dekretuak ekarri zuen berrikuntzetako bat eus-

kararen jakite maila ezberdinen sailkapena izan zen. Ezarritako hiru mailetan altuena 1.a da: mintzamenean 4. maila eta idatzamenean 3. maila (Hizkuntza Eskola Ofizial batekoa).

Beraz, deialdi hauetako lanpostu huts batzuek betetzeko euskaraz jakin beharko bada ere, hizkuntza honetan gaitasun osoa izatea ez da beharrezkoa izanen. Bistan denez, euskaraz aritzeko gaitasun osoa ez duen langile batek ez du bermatzen gaitasun osoa izan denik, are gehiago euskara ez den hizkuntza batean mintzatzeko zailtasunak dituzten herritarren kasuan.

Bestalde, inor ez ginateke harrituko euskaraz jakitea derrigorrezkoa den lanpostu hauek hutsik geratuko balira. Izan ere, eta aipatu dekretuak ezarritakoaren arabera, lanpostu hauek eskuratzen dituztenak, aurrerantzean lanpostuak betetzeko egiten diren deialdietan, euskaraz jakin behar den lanpostuetarako soilik lehiatzen ahalko dira (...).

Bistan da hau guztia langileen mugitzeko askatasunaren aurka doala. Osasunbideak egiten dituen deialdietan lanpostu kopuru bat (eskainitako lanpostuen % 10) estatu mailako lekualdatze-lehiaketetarako uzten du, eta, bestalde, Foru Komunitatearen barne mugitzea erabat mugatzen du. Hau da, lanpostua Cádizeko lanpostua eskura dezake, baina, aldiz, lanpostua Etxarri-Aranatzeko lanpostu bati ezin du Elizondo edo Iruñeko plaza eskuratu.

b) Euskaraz jakitea merezimendu kualifikatua denean

Euskaraz jakitea beharrezkoa ez den lanpostuen kasuan, merezimendu kualifikatua izanen da. Kasu hauetan hizkuntza eskubideen urraketa are nabarmenagoa da, deialdiek ez baitute bermatzen lanpostu hauek eskuratuko dituztenek euskaraz jakin dutenik. Hau da, non geratzen dira euskaraz atenditzetik ez duen medikua egokitu zaion baztandarraren hizkuntza eskubideak?

Gainera, deialdietan ezarritakoaren arabera, euskararen balorazioa ez da inoiz izanen frantsesez, ingelesez edo alemanez jakiteari emanen zaion puntuazioa baino % 10 gehiago. Beraz, Lesaka, Leitza, Doneztebe edota Etxarri-Aranatz bezalako herrietako lanpostuak eskuratzeko, euskaraz jakitea eta beste hizkuntza horiek jakitea berdintsu baloratuko da.

Euskara eta beste hizkuntza horiek maila beretsuan jartzea eta tratamendu beretsua ematea mingarria zaigu. Norbaitek zalantzan jarriko al luke Baztanen lan egiten duen pediatrak haur gehienak euskaraz atenditu beharko dituela, eta ez alemanez, ingelesez edota frantsesez? (...)

Urtarrilaren 30ean Nafarroako Gobernura nafar herritarren artean bildutako ia 5.000 sinadura eraman genituen. Horien bitartez herritarrek Osasunbideko arduradunei ospitale, ambulatorio eta osasun zentroetan euskararen normalizazioa bideratzeko plana martxan jartzeko eskaria egin zieten. Halaber, eremu euskalduneko hainbat toki entitatetako alkate eta lehendakariak Osasunbideko Kontseilaria den Santiago Cerverari berearekin biltzeko eskaera luzatu genion. Oraingoz ez dugu erantzunik hartu.

Beraz, Nafarroako Gobernuak gure eskaerak eta berak ezarritako legeak ez dituen ez inolaz ere aintzat hartzen, euskararen normalizazioaren aurkakoak diren neurri hauek guztiak publikoki salatzen jarraituko dugu.

José Ramón Amoros Oskotz,
(Bortzirietako Euskara Mank.)

Tomás Azpiroz Alkotz
(Iparraldeko Euskara Mank.)

José Manuel Leitza Razkin,
(Sakanako Mank.)

Francisco José Oyarzabal Iri-goyen, Baztango UAlkatea
Miguel San Miguel Azpiroz,
(Malerrekako Zerbitzuen Mank.)

PRENTSATIK BILDUTAKOAK



GARA, 2002ko Martxoaren 11a

«Estenopeika teknika erakargarria egiten zait: batetik, argazkien estetika gustatzen zait, argazkiak nola gelditzen diren. Bertetik, argazkiari norberak nahi duen forma emateko aukera ematen du; bai deformazio aldetik, bai negatiboaren tamainari dagokionez. Gainera, norberak kontrolatzen du prozesu guztia: kamera egin, argazkia atera eta errebelatu, norberak egiten du dena».

Asier GOGORTZA
Berako argazkilaria
GARA 02-03-11

«Zazpi edo zortzi urterekin herriko instituturatu sartu eta dena nahastu nuen. Lehen aldiz atxilotu ninduten orduan»

«Hamasei urterekin 1,60 neurtzen nuen. Apendizetik operatu eta, hiru hilabetez, 16 zentimetro hazi nintzen».

«Orain dela bi urte desastre nenbilen, egunero juergan eta burua beste gauza batzuetan nuela, eta gauzak oker egiten hasi nintzen».

Mikel GOÑI
Oronoko pilotaria
ZABALIK 02-03-08

11 GALDERA LABUR



Patxi BARANDARAIN Aresoko ehiztari eta arrantzalea

Betidanik ehiztaria zinela bagenekien, baina basurdetan noiztik?

Gaztetan ibilia naiz, hogeitaz urte geldirik eta berriz hasi naiz orain.

Taldean edo bakarka gustorago?

Bietara, beno, uso ehiza ez da txarra txabolan bazkalduz, baina ehiza bakarkakoa da.

Laster arrantza sasoia irekiko da, ez da?

Asteburu honetan ireki da.

Ehiztari baten etxean, semeak ere ehiztari?

Hemen hala da baino...

Gustoko al duzu platerean ehiza edo arrantzako gaiak?

Biak oso gustoko ditut.

Zer moduz portatzen dira bi ehiza txakur horiek?

Oso ongi, poz-pez nago.

Mendira joateko derrigorrezkoa al da motorra edo todoterrenoa?

Oinez joan nintzen ni lehengoan, baina orain modan daude motoa ala todoterrenoa.

Usoa, basurdea, oilagorra edo amarraina harrapatzea, zein duzu gustokoen?

Gustokoena bakarrik egiten den ehiza da, oilagorra.

Ehiztarien kontuari beroarena kendu behar zaio?

Bai, bai pixka bat bai.

Ehiza eta arrantzako momentuan adiskideak galtzeko arriskua?

Ez, ez! Niri ez zait horrelakorik suertatu.

Debekatutako piezaren bat erori al da aurtent?

Ez, ez... ezta pentsatu ere.



MARTIKO
Gure baserrietako produktuak

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA



Kantonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa



© 948631076 • BERA



ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266



■ Kalefakzioa
■ Gas Instalazioak
■ Iturgintza industriala
■ Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

INGURUMENA

Artikutza Intereseko Toki izendatzeko lehen pausua eman du Nafarroako Gobernuak

Nafarroa osoan 41 leku daude zerrenda hortan sartuak

ttipi-ttapa

Artikutza Nafarroako Toki Garrantzitsuen zerrendan behin behineko sartzea erabaki zuen Nafarroako Gobernuak martxoaren 4ko batzarrean. Gaur egun Nafarroako 41 tokik dute izendapen hori, eta eskualdeari dagokionez, Bidasoa erreka, Orabideko erreka, Aritzakun-Urritzatek, Bertizko jaurerriak, Belatek eta Kintoak dira zerrendan sartutakoak. Artikutza zerrendan sartzeko dagoen dokumentazioa jende aitzinean izanen da Iruñean, Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduan bi hilabetez eta gero Ingurumen Ministeritzara igorriko da,



ARTXIBOKOA

Artikutza auzoan dagoen Olajumdo etxea. 3.645 Hektareatik 16 bertzerik ez dira produkzio lanetara emana. Gainerakoa oihana eta ura da.

Natura 2000 Sarean sartu ahal izateko.

Artikutza Goizueta-ko udalerriaren barnean dago eta 3.645 hek-

tarea ditu. Horietatik 2.893 hektarea zuhaitz hostozabalek osatzen dute, haritz, eta pagoak batez ere. 381 hek-

tarea pinudiak dira, 355 zuhaitzik gabeko oihana, 86 hektarea ura eta azken 16 Hektarea produkzioarako eremuak di-

ra. Mende hasieran Donostiako Udalak erosi zuen Artikutza, bertako urtegitik Gipuzkoako hiriburua urez hornitzeko. Gaur egun, larrialdi kasuetarako bakarrik erabiltzen da Artikutzako ura, hornidura arrunta hurbilean dagoen Añarbeko urtegitik egiten baita. Azken 75 urteetan oihana eta ingurua babesteko egin den politikaren ondorioz, paisai zoragarria du Artikutzak. Hainbat animalia klaseri babesa ematen dien pago eta bertako haritzekin osatua dago batez ere arboladia. Gainera, mendez mendez bertatik igaro diren gizakien aztarnak gordetzen dira, bai historiaurreko trikuharriak eta harrespilak, baita Erdi Aroko olak ere.

ZALAIN
JATEETXEA

EGI INERKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735 - 607 406781

BURKAITZEA
ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI

ARTEKARI
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Astelehenerik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA

Karlos Altzugarai
FISIOTERAPEUTA

- LAN ISTRIPUAK
- TRAFIKO ISTRIPUAK
- KIROL LESIOAK
- GIHAR, ARTIKULAZIO, ETABetako MINAK
- EBAKUNTZA ONDOKOAK
- ETA ABARetako **TRATAMENDUAK**
- MASAIK. ETXEZ ETXeko LAGUNTZA

Itzea, 20 • BERA • ☎ 948 630187-607 853208

BERA

Saverako buruek uko egin diote Selak-eko langileekin negoziatzeari

Mobilizazio gogorrakoak iragarri dituzte Hernaniko lantegikoek

Asier GOGORTZA

Joan den aste osoan Saverako enpresako atean bildurik egon ziren grebalariak, enpresako zuzendaritzarekin elkarriketa bat izan nahian. Fabrikara sartzen ere saiatu ziren, baina Guardia Zibilak eragotzi zien, izan ere, aste osoan izan ziren poliziaren patrola enpresaren atea zaintzen.

Orain bi aste Selakeko komitea enpresa buruekin bildu zen Donostian, eta bilera hartan zuzendaritzak Hernaniko enpresak itxeko mehatxua egin zien langileei, beren eskaerekin segitzen bazuten.

Joan den asteartean asanblea batean bildu ziren Hernaniko langileak eta enpresa buruek



Joan den astean 24 orduraz egon ziren Selakekoak Saverako atarian.

ez dutela negoziatu nahi azaldu zieten Saverako langileei. Asteazken honetan berriz biltzekoak ziren.

Hernaniko Saverako Services eta Selak en-

presetako langileak greban dira joan den urtaririla hasieratik. Bi enpresa horiek Saverako taldea osatzen dute Bera lantegiarekin batera. Hernaniko langileek or-

dutegia murriztea, istripuen aitzineko segurtasuna eta soldata igotzea eskatzen dute, eta orokorrean lantegiko lan baldintza kaxkarrak hobetzea.

FLASH

Gazte Jokoetako azken txanpa

Larunbatean egingen da Gazte Jokoetako hon-dar proba. Talde bakoitzak parodia bat antzetzutu beharko du Kultur Etxean. Hori ilunabarrean izanen da, eta ondortik afari batekin emanen diote akabera aurtengo jokoei.

"Atekaleun" liburu-cd-a karrikan da

Xabier Erkizia eta Asier Gogortzak egindako musika eta argazki liburu argitaratu da aste honetan. Estenopeika teknikaz ateratako argazkiak eta soinu grabaketa naturalak biltzen dira lan honetan. 12 euroren truke egonen da salgai Berako ingurunearen ikuspegi berezi hau.

Presoen aldeko mendi martxa

Martxoaren 24ko arratsaldean ailegatuko da Berarat Euskal Presoen aldeko Bortzirietako Mendi Martxa, San Miguel zubira hain zuzen. Ondotik Alzaten ekitaldia egingen da joan den urteko martxoko atxiloteten urteurrena betetzen dela gogoratuz.

Argazki ikastaroa

Gure Txokoa elkarteak argazkilaritza ikastaroa (hastapena) antolatuko du apiriletik ekainera. Larunbat arratsaldean izanen dira klaseak, eta apuntatzeko martxoaren 27a baino lehen deitu beharko da 606 072 753ra (Gorane).

ZINE KLUBA

"Kandahar" filmea izanen da ortzegun honetan Kultur Etxean

Ortzegun honetan, martxoaren 21a, Berako Zine Klubaren bigarren emankizuna egingen da, Afganistango emakumeen gaineko istorioa proiektatuko da arratsateko 8,30etan.

"La habitacion del hijo" izan

zen lehen emankizuna, eta 45 bat lagun bildu zirela eta, antolatzaileak arront kontent agertu ziren, baita Kultur Etxera hurbildu ziren ikusleak ere.

Antolatzaileak jakinarazi dutenez, hamabortzetik behin filme-

ak eskaintzen segituko dute, eta heldu direnen artean "No man's land" bosniako gerrari buruzkoa egonen da. Berriki zine-areto handietatik pasatutako bertze hainbat filme ere pasatuko dira, beti ere zinema komertziala saihesteko irizpidean oinarriturik. Sarreara 2 euro gostako da emanaldi guzietan.



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA



Alizate, 19 • 948630786 • BERA

LESAKA

Kirol arloan garaipen aunitz ekarri dizkigu herrira martxo hasierak

Almandoz eta Larralde pilotan eta Fagoaga plater tiraketan txapeldun

Aitor AROTZENA

Martxo hasieran emaitza bikainak esku-ratu dituzte herriko kirolariek, eta txapel eta sariak ekarri dituzte Lesakara. Pilotan, Iñaki Larralde, Txaruta elkarte-ko pilotari lesakarrak gazte mailako Euskal Ligako txapela jantzi zuen martxoaren 2an Azkoitian, finalean Bidaniako Bellosori 22 eta 19 irabazi ondotik. Harritzekoa bada ere, finalera ailegatutako bi pilotariek lehen urtea dute jubenil mailan, 16 urte bertzerik ez baitute. Eta gazteenak, Iñaki Larralde lortu zuen txapela.

Etxaniz II.ak eta Jexux Mari Almandozek jantzi zuten martxoaren 8an bigarren mailako binakako txapela. Azkoitian jokatuak finalean 22-13 irabazi zieten Aio eta Gorritiri, emaitzak erakusten duena baino partida gogorragoan. Lehendabiziko erdian, hobeki jokatu zuten Aiok eta Gorritik eta markagailuan aitzinetik izan ziren. Besagaineko bikoteak finala bideratua zuela zirudien, baina Aiok hainbat huts egin zituen segidan eta Etxanizek eta Almandozek buelta eman zioten mar-



ARGAZKIA: GARA

Iban Etxaniz azkoitiarra eta Jexux Mari Almandoz lesakarra, bigarren mailako eskuz binakakoa irabazi zuten martxoaren 8an.

kagailuari (16-11). Partidak aitzinera egin ahal gainera, goiti egin zuten jokoa Etxanizek eta Almandozek ere eta ez zieten aukerarik eman Aio eta Gorritiri.

Jone Fagoaga irabazle Errege Kopan

Jone Fagoagak plater tiraketako Skeet Olimpiko modalitatean Espainiako Errege Kopan irabazi zuen martxoko lehen aste hondarrean Madrildo Cantoblanco-

ko tiro zelaian. Bi egunez 125 plater hautsi zituen Jone Fagoagak, eta Espainiako erreketik bi platerera gelditu zen. Mirian Delgado izan zen bigarrena Errege Kopan eta Madrildo Victoria Carbonell hirugarrena. Azken probetan erakusten ari den maila ikusiz, Espainiako selekzionatzaileak nazioarteko proba guzietan parte hartuko duela errana dio lesakarrari. Honela, maiatza aldera Andorran jo-

katuko den Europako txapelketan eta Finlandian egingen den Munduko txapelketan parte hartuko du Jone Fagoagak. Helburua, entrenamenduetan erakusten duen segurtasuna eta punteria konpetizioetan urduritasuna dela medio ez zapuztea izan da. Izan ere, entrenamenduetan gizaseme aunitzen maila berean aritzen da Jone, baina konpetizioan pixko bat beheiti egiten du nerbioen ondorioz.

FLASH

Antzerki tailerra larunbatero

Mairu antzerki tailerra larunbatero aritzen da, goizeko 11etatik aitzinera ikastolako gimnasioan. Izen emateko edo informazio gehiagorako 948 637256 telefonora (Maite) deitu. Jakina denez, «Trizikloa» eta «Zugarramurdiko sorginak» lanak taularatu ditu Mairuk, baina larunbat goiza giro onean pasatzeko aukera eman nahi die parte hartu nahi duten guziei.

Beti Gazteren batzarra

Ortziral honetan, martxoak 22, Beti Gazte elkarteak urteko batzarra egingen du, arratsaldeko 7,30etan lehen deialdian eta 8etan bigarren. Joan den urteko akta irakurri ondotik, iazko kontuak eta ekitaldiak ikusiko dira, baita aurtengorako prestatutako aurrekontu eta ekitaldiak. Eskari-galderen aitzinetik, bazkideek ordaindu beharreko kuotak berrikusiko dira eta zuzendaritza batzordea aukeratu da.

Altxaferoren aldeko meza

Fraindarrek Javier Sada «Altxafero» zena aldea aldeko meza eta ondotik afaria egin zuten martxoaren 9an. Suhiltzaile boluntario eta Sanferminetako tanborradako gidaria izateaz gain, lan istripuan hildako Altxafero Fraindarrekin batera ateratzen zen iñauteetan.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
© 948 637826

ANIA
jantaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

XATURETXEA
364
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

Etxalar herriari buruzko web orria sarean da

www.etxalar.org helbidean sartuz bisita daiteke

Joseba eta Nerea

Joan den azarotik Jabier Iriarte Sansiñena 22 urteko gazte etxalartarra Etxalarko web orria prestatzen aritu da. Web gune hau sare proiektuaren barrenean dago eta udalak, langile hau kontratatatu zuen lana burutzeko. Hasieran web orrian sartu behar zen informazioa herriko elkarteek eta partikularrek prestatu behar bazuten ere, azkenean Jabier Iriartek egin behar izan du bilketa lan guzia. Hala ere, berak erran digunaren arabera, kolaborazio pare bat izan du.

www.etxalar.org helbidean sartuz gero honako orrialdeak ikus daitezke: Herri aurkezpena, Herriko Etxea, Zerbitzuak, Ondarea, Kultura, Kirolak, Turismoa, Usategiak, Euskara, Aldude & Etxalar esperientzia, Eskuerak eskaintzak, Berriak, Etxalar lagunkide eta Bisita liburua. Atal guzi hauen barrenean bakoitzari buruzko zehaz-



Etxalarko web orrian, herriari buruzko hainbat jakingarri daude.

tapenak aurki ditzakegu, horrela, adibidez Ondarearen barnean azpiatal hauek daude: Arkitektura, Historia, Kultura eta Natura.

Jabierrek berak erran digunez «egin beharreko lana, hau izatea espero nuen, baina kultur etxeko obrak gibelu egin direnez, niri ere lana luzatu egin zait. Ho-

netaz gain, erran behar dut herriko jendearen kolaborazioa proiektu hau antzinera eramaterakoan uste baino tikiagoa izan dela».

Oraindik erabat akautu gabe baldin badago ere, Internet duzuenok behintzat, web orri hau bisita dezakezue arestian aipatutako helbidean.

Eskolako haurrak Ordizian

Asteazken honetan, martxoak 20, Landagain eskolako 4. eta 6. mailako ikasleak Ordiziako azokan egon ziren. Igan-tzi eta Arantzako adin bereko ikasleekin batera azoka ikusteaz gain, herria ere ezagutu zuten.

Tai Chi eta Chi Kung ikastaroa

Pilartxa Barbeira etxalartarrak gure inguruan batere aditua ez den ikastaroa paratu du martxan: Tai Chi eta Chi Kung ikastaroa. Txinako medizina herrikoian oinarritutako gimnasia da, mugimendu leun eta sakonak erabiliz koordinazioa eta erlajazioa lantzen duena. Ikastaroren irakaslea, Pilartxa Barbeira, ez da hasiberria gisa honetako lanetan; Tai Chi monitorea da, Liu Dong eta Liu He Tai Chi irakasleekin ikasia eta "Instituto Internacional de Chi Kung"en diplomatu. Duela 4 aste hasi zen ikastaro honekin eta astearte eta ortzegunetan elkartzen dira 10 bat lagun 3'30etatik 4'30ak arte. Interesatuak oraindik badute aukera apuntatzeko eta gainera Pilartxak berak aipatu digun moduan «lehenbiziko klaseak dohai-nekoak dira, klaseetan zer lantzen den ezagutzeko eta gustokoa izanez gero antzinera segitzeko». Informazio gehiago 948 635270 telefonoan.



ETXALARKO HERRIKO OSTATUA

Ostatua eta jatetxea berriz ere zabalik!

© 948635290

IRU BIDE

Tfnoa: 948 637 127
LESACA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

bortzirudi

BERA

FOTOKOPIAK • PAPERTEGIA • DISEÑO GRAFICO

ENQUADERNAZIOAK • IMPRIMERIA • INGENIERIA

PLASTIFIKAZIOAK • SERIGRAFIA

FAXA • E-MAILA • TIRADILUAK

SKANNERRA • ARMAZKIDURAK • PUBLIKITATIA

Etegera 26 beheak

Tel. - Fax: 948 63 15 21

IGANTZI

Herria ezagutuz

Zailtasun handiak ikusten dizkio udalbatzak kanpina paratzeari

Otsailaren 2an egin zuten Baratzondo elkarteko urteko batzarra

Oskar TXOPERENA

Frain aldean kanpina paratzeko aurreproiektua eztabaidatu zuen Udalbatzak azken bilkuran. Goietxeborda baserria izanen litzateke kanpin berriaren erdigunea. Bere inguruan, bai azpiko aldeko belagaian eta baita bere gaineko lur zati handietan ere, paratuko litzateke azpiegitura berria, etxe aurrefabrikatuak eta guzti. Udalak arazo handiak ikusten dizkio aurreproiektuari: Alde batetik handiegia iduritzen zaio, hartzen duen lur eremuarengatik. Bigarrenik, aurrefabrikatutako etxeak, arau subsidiarioek gaur egun diotenaren arabera, ezin dira Igantzin onartu. Udalbatzaren ustez, gainera, ur eskasia ere hagitx garrantzitsua da, kanpin baten beharrak kontuan hartuta, erabakia hartzerako orduan. Azkenik, kotxeen joan-etorriak ere kontutan hartzekoak direla aipatzen dute. Ikusi egin be-



OSKAR TXOPERENA

Elkarte guziek urte hasieran egiten dituzte urteko batzar nagusiak, Igantzin behinik behin. Lehengoan Biltokin egindakoari buruz aritu baldin baginen, oraingoan Baratzondo Jubilatuz Elkartek egindakoa aipatuko dugu. Jende gutti samar bildu zen nonbait batzarrera, eta Junta zaharrak urte guzian egindako ekintzen eta kontuen berri eman ondotik Junta berria aukeratu zuten. Jose M^a Bego izanen da lehendakaria hurrengo bi urtetan, Ana M^a Zelaieta ariko da idazkari lanetan eta Meltxor Sein, Teodoro Sein, Esteban Goia eta Jose Luis Zelaieta izanen dira bokal berriak.

har orain zer erabakitzen duten kanpinaren bultzatzaileek Udalaren erantzuna ikusita.

Zenbait lur birkalkitatzeko erabakia ere hartu zuen Udalak bilkura berean. Nonbait, baserri eta borda anitz omen dago oihan lurretan sartua, edozein al-

deketa edo obra galarriz. Ondorioz, arauak aldatzeko dokumentazio prestatzen hasi dira arkitektoak.

Biltokiko mus eta partxis txapelketa

Musean Javier Taberna eta Iñaki Goie-

netxek jantzi zuten txapela, finalean Eulogio Mitxelena eta Josetxo Arburua garaituta. Partxisean, berriz, Anuntxi Txoperena eta Virtudes Iguzkiagirrek lortu zuten garaipena, finala Amaia Sein eta Idoia Bereau ama-alaben aurkajokatu ondotik.



Kanposantu zaharra

Elizaren gibleko aldean dago mende erdi batez, 1841etik 1886ra bitartean, herriko kanposantua izan zena. 1811an, izurrite ikaragarriak zirela medio, lege berria atera zuen garaiko Gobernuak: «se prohiben enterramientos dentro del poblado». Bitartean elizan bertan edo atarean (zimiterioa deitzen zaio oraindik atareari) ehortzen edo enterratzen ziren gorpuak, baina, erran bezala, kutsatzeko arrisku handia zegoen izurritearengatik. Bada, 1814rako Piedadeko baseliza ondoan, orain dagoen lekuan, kanposantu berria egitea pentsatua bazegoen ere, 1841ean Merkateneko jabeari, Juan Miguel Irisarriri, erosi zion Herriko etxeak eliza giblean dagoen lur zatia. Erran bezala, 45 urtez izan zen igantziko kanposantua, baina, 1884ean agindu zorrotza bidali zion Gobernadoreak Herriko etxeari: «proceda en el inprorrogable término de 15 días a formar el expediente de construcción del nuevo cementerio». Gartxipiako Antonio Suescun-ekin egin behar izan zuen permuta kanposantu berria Piedaden egiteko.

BERRAZKUN
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

PINTURAS LEGUIA S.L.
Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
Eztegara 26, 2.C - BERA

ARANTZA

Martxoaren 9 eta 10ean urteroko egonaldia egin dute herriko gazteek elurretan

Gazte Asanbladak antolatuta, hogeita bortz lagun izan dira Luz Ardidenen

Nerea ALTZURI

Negua, hotza eta grisarekin lotzen dute aunitzek. Eta egia erran, zenbait lagun ahotik horren adierazgarri diren hitzak aditzen ditugu noiznahi: «Neguzar hau, joateko hobia da!». Hau erraten duenak ez ditu hagitz gustoko eguna hain goiz iluntzea, goiz hormatuetan ernatzea, eguraldi idor eta hotzak... Aurtengo negua, egia erran, bere ezaugarrietako batzuk agerian utzi ditu, baina sasoi bateko elurte eta hotz haundiak, gazteak garenok ez ditugu baretu.

Mendi tontorretan elurra ikusi dugu aranztarrok. Eta beharbada ukitu ere bai beherago, baina denak ere ez dira aski izan eskiatzen aritzeko. Arantzakogazte Asanbladak, aurten bertze urte batez eski bidaia egin du, elurretako kirol honekiko zaletasuna badela argi geldituz. Martxoaren 9 eta 10ean, Luz Ardideneko



luz bezalaxe, Luz Ardidenera joan dira aurten herriko gazteak.

eski estazioan izan ziren herritarrek, aranztar ez ziren bertze lagun batzuekin: lekeitioarrak, donostiarrak... guzira 25 laguneko taldeak ezin hobeki pasatu zuen aste hondarra. Larunbatean, laino pixko bategi trabatu zuten eskiazaileei jarduna, baina igandean eguraldia primeran portatu zitzaizen elurretan probetxeko. Gainera, atsedean hartzeko ere, Luz Ardide-

neko hotela zuten larunbat arratsean. Luxuzko astebukaera pasatu zutela zitoritu digute bertaratu ziren batzuk. Negua joan da, eta udaberrian sartu gara orain. Bertze bi urtaropasatu beharko dira gazte Asanbladako kiadeek eski-bidaia antolatu dezaten. Baina udaberria, uda eta udazkena urtesasoietan ekitaldiak ez dira faltako gazteen eskutik.

Baina, otsailaren hondar astean ere eskolako hameka ikasle eta bi irakasle Otsagin izan ziren elurretan. Urtero bezala, aurten ere «Aste Zuria» programaren barnean antolatu da ateraldia. Ikusten duzuen moduan, afizionatu franko dago herrian. Pena bakarra, elurgutxi egiten duela mendi magal maldatsuetan eskiatzen entrenamenduak egiteko!

Urteko batzarrak zenbait elkartetan

Ekaitza elkarteak urteko batzarra egin zuen martxoaren estreineko asteburuan. Zehaztuak zeuden puntuen artean, juntaren berritzea aintzina eraman zen batzarrean. Horrela, joan den urtean egindakoak eta aurtengorako prestatutakoak errepasatu ondotik, junta aldatu da. Juntako partaideen izenen berri, heldu den alean zehaztuko dizuegu.

Martxoaren 15ean Bortzak Bat kooperatibak ere urteko batzarra burutu zuen Zahartxokan. Iazko gastu eta sarrerak jakinarazi zitzaizkien bazkideei eta junta berritu zen.



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIKUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuekako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



ALBERGIA JATETXEA

☎ 948 634179
ARANTZA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

DONEZTEBE

Landa Eremuko Emakumeen V. Topaketa larunbat honetan egingen da herrian

Ezpelurak antolatu du, Doneztebeko Udala eta Emakumearen Institutuaren laguntzaz

ttipi-ttapa

Larunbat honetan, martxoaren 23an Donezteben ospatuko den Landa eremuko emakumeen bosgarren topaketa prestatzen buru-belarri ari da Ezpelura elkarteak, Doneztebeko Udalaren eta Nafarroako Emakumearen Institutuaren laguntzarekin.

Egitarauari dagokionez, goizeko 11etan Aparango aparkalekura ailegatuko dira partehartzaileak. Bertan harrera egingen zaie eta jolaldunekin batera elizarako bidea hartuko dute. 11,30ak aldera elizan ongietorria eskainiko zaie bestera datozen elkarte eta bertze pertsonen. Ana Etxeberria Ezpelura elkarteko presidentea, Loren Albeniz Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendariak eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak agurra egingen dute. Elizan diapositiba emanaldia eta Doneztebeko abesba-



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Ezpelura emakume elkarteko ordezkariak Jabier Elizalde Doneztebeko udaleko zinegotziarekin, Landa Eremuko Emakumeen Topaketak aurkezten.

tzaren emanaldia izanen da. Trapatan dantza eskainiko da elizartarian. Ondotik, artisauen erakusketa izanen da Santa Luzia plazan. Euria egingen balu eskolako aldagelen pasilloetan egonen dira artisauak. Ordu bi terdiak aldera bazkaria izanen da eskolako frontoian eta ondotik dantzaldia

Atsegin taldearekin. Azkenik, bestaren lekukoa pasatuko zaio Azkoien go elkarteari.

EMAKUMEAREN EGUNAREN INGURUKO EKITALDIAK

Egun haundi honekin, Ezpelurak Emakumearen Egunaren inguruan antolatu dituen ekitaldiei akabaila em-

nen zaie. Bertzeak bertze diapositiba lehiaketaren sariak banatu ziren martxoaren 8an eta hiru lehendabiziko sariak Baztanera joan dira. Lehendabiziko saria Jose Erregerenak irabazi du, bigarrena Lander Goñik eta hirugarrena Juanito Lameiriñasek. Martxoaren 7an, Hazeako hezitzaileak

«Emakumea bigarren heldutasunean» gaiari buruzko solasaldia eskaini zuen. Martxoaren 16an, «Yo soy esa» izeneko antzerki-monologoa ikusgai izan zen liburategian.

Lanak kiroldegian

Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak Doneztebeko udal kiroldegian egin beharreko squash kantxa eta arte martzialen aretoa eraikitzeko proiektua, 95.425,50 euroko aurrekontuarekin, diruz laguntzea onartu du. Horretarako, Udalak Patxi Chocarro eta Maria Urmenetak egindako proiektua onartu du eta lanak emateko lehiaketa deialdia zabaldu du. Finantziarioari dagokionez, 49.583,5 euroko mailegua eskatuko du Udalak eta gainerakoa, Kirol eta Gaztediaren Institutuaren dirulaguntzarekin eta Herriko Etxeak ordainduko du.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

Bakailuak

Inportazioko bakailua
Kalitate onena • Faroe irletakoa

• bakailu gezatua bere puntuan

Enkarguak hartzen dira

San Juan Plaza, autobus geltokian
Tel.: 943 627131 • IRUN

Elementines

Guzia zure umearantz

Arrue, Quinny, Maxi-Cosi, Red Castle, Tuc-Tuc, Baby Björn, Avent, etab...

Zubiaurre 3 (Renfetik hurbil) • IRUN

SUNBILLA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak urteko batzarra egin zuen martxoaren 9an

Joxelu Retegi lehendakaria ordezkatzeko hauteskunde prozesua hasi da

Aitor AROTZENA

Martxoaren 9an bi batzar egin ziren Nafarroako Herri Kirol Federazioak Sunbillan duen egoitza. Bata, urteko ohiko batzarra, joan den urteko kontuak eta aurtengorako presatua duten aurrekontua eta ekitaldiak ikusteko eta bertzea ez ohikoa, azken bederatzi urtetan lehendakaria izandako Joxelu Retegiren dimisio aurkezpenarekin.

Ohikoa batzarrean, honako informazio hau eman zen: joan den urtean antolatutako ekitaldi guztien zerrenda, joan den urtean antolatutako txapelketa guztien xehetasunak eta 2001ean egindako Nafarroako txapelketen emaitzak. Diru kontuei dagokienez, joan den urtean 18.694.253 pezetako gastuak egin ziren eta 18.105.662 pezetako diru sarrerak izan ziren Nafarroako Herri Kirol Federazioan.

2002. urteari begira, 114.600, 96 euroko au-



ARTXIBOKOA

Euskal Herriko harrijasotze txapelketa ezberdinak Nafarroan jokatu dira aurtan.

rrekontua izanen da. Euskal Herriko zenbait txapelketa Nafarroan antolatzea egokitu zaio aurtan Herri Kirol Federazioari. Bertzeak bertze, bigarren mailako aizkolari txapelketa, harrijasotze txapelketak,

harri haundiekin, ttikiekin nahiz kintopekoak edo hogeita bat urtez beheitiko harrijasotzaileei zuzendutakoak eta Euskal herrialdeetako kirol txapelketa antolatuko ditu aurtan Nafarroako Herri Kirol Fe-

derazioak. Batzarreak, 2001. urteko kirol balantzea eta balantze ekonomikoa onartu zituen, baita 2002. urteko aurrekontua ere.


BEDERATZI URTEREN ONDOTIK, KARGUA UTZI DU JOXELU RETEGIK

Ohiko batzarra akautu ondoren, ez ohiko batzarra burutu zen. Bertan, azken bederatzi urtetan Federazioko presidente izandako Joxelu Retegik bere dimisioa aurkeztu zuen eta lehendakari berria hautatzeko hauteskunde egutegia ere aurkeztu zen. Batzarrek Retegiren dimisioa eta hauteskunde egutegia onartu zituen. Aldi berean, Joxeluren dimisio egunetik lehendakari berria hautatu arte iraunen duen batzordea osatu zen.

Bertzalde, larunbat honetan, martxoak 16, Nafarroako Herri Kirol Federazioak zuhaitz landaketa egin du Arribe-Atallun.

Lehendakaria hautatzeko egutegia

Martxoaren 20an lehendakaritzarako hauteskundeak konbokatu dira, Federazioko Hautes Batzordea osatu eta hautes egutegia publikatu da. Martxoaren 23an irekiko da Herri Kirol Federazioko lehendakaritzarako hautagaiak aurkezteko epea eta 27an itxiko da. Apirilaren 8an, Federazioko Hautes Batzordeak errekurtsoen erresoluzioa egingen du, lehendakaritzarako hautagaien behin betiko zerrenda aurkezteko. Batzar Orokorra apirilaren 13an egingen da eta bertan hautatuko da Federazioko lehendakaria. Apirilaren 18an Hautes Batzordeak lehendakari hautaketarako erresoluzioak moldatuko ditu, emaitzak onartu eta Federazioko lehendakaria izendatuko da.



BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



GAZTANDEGIA
Etxeko
Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

GOIZUETA

Zuberoa biziberritzearen aldeko barrikotea egingen da apirilaren 6an

Bake epaile izateko epea martxo bukaera arte zabalik izanen da

Esteban AROTZENA

Garaitsu honetan urtero antolatzen den barrikote herrikoia hurrengo apirilaren 6an burutuko da, eta aurtengoa sobratzen diren sotsak Zuberoarentzat izanen dira. Euskal Herriko Iparraldeko herrialde hau bizirik iraun ahal izateko milioi bat euro biltzeko kanpainari ekin dio Udalbiltzak eta, esan bezala, deialdi honekin bat egin dute barrikotearen antolatzaileek. Txaranga eta guzi frontoi zaharrea egingen den afari honetarako txartelak apirilaren 3a arte egonen dira salgai berritiko lekuetan.

Bake epailea

Hurrengo lau urtetan herriko bake epailearen



PILI ZUGARRAMURDI

Euskal Herriko hainbat erakunden ilegalizazioa salatuz bi eguneko baraualdia egin berria dute bederatzi herritarrek. Bestalde, presoek eskubideen aldeko kontzentrazioei ere tinko eusten zaie, hilero-hilero azken ostiraleko ilunabarreko 8etan egiten baitira herriko plazan.

postua bete nahi dutenentzat Udaletxean izena emateko epea zabalik egonen da martxo bukaera arte. Azken erabakia udalbatzak hartuko du, gehiengo absolutoa behar baita izen-

dapenak balioa izan dezan.

Ixkibi kanpina denboraldian alokatzeko

Ixkibi kanpinako zerbitzu guztiak alokatzeko

asmatan dira bere jabeak aurtengo denboraldirako, hau da, ekainaren 15etik irailaren 15a bitarte. Informazio gehiago jaso nahi duenak 639 165436 telefonora deitu beharko du.

IXKIBI
Kanpina alokatzen da ekainaren 15etik irailaren 15a bitarte.

© 639165436 • GOIZUETA

ARESO

Oihana antolatzeko plana egiten hasiko da Basartea enpresa

Datozen hamar urtetan mendian egin beharrekoa azalduz

Juana Mari SAIZAR

Oihana antolatzeko plana egiteko Basartea enpresa kontratatu du Nafarroako Gobernuak. Urte terdiz egingen den lanean, hurrengo hamar urterako mendiaren antolaketa egingen da, hobetu beharrekoak, oihan aprobetxamenduak, garbiketak eta landake-

ta berriak programatuz. Nafarroako Gobernuak eta Aresoko Udalak ados jarri behar dute planaren azken emaitzarekin.

Euskal Herriak bere eskola

Euskal Herriak bere eskola kanpainaren barnean martxoaren 12an

Aresoko eskolan Igor Arroyok hitzaldia eskaini zuen. Kanpaina berarean, firmak biltzeko mahai jarri zen eskolan egun horretan.

Emakumearen Eguna

Martxoaren 8an, iluntzeko 9etan eskolako gimnasioan emakume-



ARTXIBOKOA

Urte terdiz egingo da Aresoko mendi eta oihanak antolatzeko plana.

aren eguneko afaria antolatu zuen Guraso Elkartek. Afalondotik antzerkitxo bat ikusteko aukera izan zuten.

Pinadia

Larrekobordako pinadia berriz ere enkantera aterako da, %20eko beherapenarekin.

LEITZA

Manifestazio isila Maxurrenearen alde

Herriko 18 talde eta elkartek
deitu dute larunbat honetarako

Mikel ILLARREGI

Martxoaren 9an egiko prentsurrekoan jakinarazi zenez, herriko hogeita hamazortzi taldek deiturik, larunbat honetan, martxoak 23a, arratsaldeko 18:00etan Maxurrenearen aldeko manifestazioa egingen da herriko kaletan. Maxurrenea egoitza beretik hasiko da eta herriko plazan amaitu. Aipatu prentsurrekoan, Nafarroako Gobernuari talde hauek adostutako manifestua azaldu zuten. Honetan, udalak hainbestetan esan duen bezala, herriak leku aproposik ez du kultura zabaltzeko eta suspertzeko eta horrela hainbat behar ezin ditu bete. Beraz, hau da arrazoi nagusienetarikoa bat eskatera hau luzatzeko. Asmo edo nahi hau nola

bideratu badakite; Kultur Etxea eta Museoa eraikitzea hain zuzen.

Honekin batera esan beharra da, duela hogeita hiru urte Amazabal patronatuak Nafarroako Diputazioari etxearen zesioa egin zionean hasierako eskriturretan (1975) azalduko baldintza jarri zion. Hau eraikuntzaren erabilera "benefizientzi eta hezkuntzarako" zuzendua behar zuela izan adierazten zuten. Ibili eta buelta, herriak askotan etxea eskatu arren Nafarroako Gobernuak Guardia Zibilaren kuartela eraikitzeko erabaki du.

Udalak, aurreko zenbakian aipatzen genuen moduan, bide judiziala zabaltzeko du. Bestalde, herriko taldeek beste bide bat jorratzen dute. Lehenbiziko ekime-



MIKEL ILLARREGI

Herriko taldeetako ordezkariak eta beste hainbeste herritarrek parte hartu zuten prentsurrekoan.

na adostutako manifestua azaltzea izan bazen ere, joan den astean, etxez etxe sinaduren bilketari ekin zioten. Honen emaitza egun hauek jakinaraziko digute.

Parrokiako Pastoral Kontseiluak, Guraso Katolikoen elkarteak eta Institutuko Kontseiluak, bakoitzak bere aldetik lehengoaz gain, beste gutun bana igorri diote Sanz Nafarroako lehen-dakariari eta Trinidad Eslava jauna Hezkuntzako ordezkariari. Bestetik, "Atakabeltz eta Ma-

xurrenea herrintzat" herri ekimenak martxoaren 15erako enkartelada mugikorra antolatu zuen. Lehenengo fase honetan egingen den hurrengo larunbat honetako manifestaldi isila izanen da. Antolatzaileen arabera, jende askok erantzunen du bai sinadura emanez, bai manifestazioan parte hartuz.

Olio zaharra

Bilketa ostiral honetan egingen da, martxoaren 22an.

FLASH

Aberri Eguna

Azkeneko udal batzarran bildutakoek (HB-EA) aho batez onartu zuten martxoaren 31n Aberri Eguna ospatzeko deialdi bateratua egitea. Egun honetan, 12etan, plazan ospatuko den ekitaldian Udalbiltzak proposatutako idatzia irakurriko da. Ondoren hamaiketako izanen da. Ikurriñak balakobetan jartzea ere eskatu dute.

Droga menpekotasunari aurre egiteko

adituaren lanpostua oposaketa-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdiera 18 lagun aurkeztu dira. Azterketa apirilaren 16an izanen da.

Mendi irteera

Martxoaren 24an Txamantxoia eta Lapakizara (Belagoa-Zuriza) mendi irteera izanen da.

Udaletxeko obra

Bigarren deialdiaren ondoren Pagozelay Goizabal, enpresari eman zaio udaletxea barrutik aldatzeko obraren ardurara. Guztira, 176.400 €.

ARANO

Nafarroako Bertso Ligaren saioa egingen martxoaren 9an elkartean

Xabier Legarreta herritarrek lortu zituen puntu gehien

Kontxi KLABER


Joan zen larunbatean, martxoak 9, Arano elkartean ospatu zen bertso ligako bigarren kanporaketa. Bertan izan genituen herriko dugun bertsolaria Xabier Legarreta, Joxe Juan Zubietza "Etxabe"

lesakarra, Nerea Bruño atarrabiarra eta Iruñeko Ekintza Landa. Aipatutako ordenean sailkatu ziren puntuetan. Besteetan bezala lehenak 7, bigarrenak 4, hirugarrenak 2 eta laugarrenak puntu 1ekin. Bertsolari bakoitzak 3 saio-

tan parte artzen du liga honetan.

50 bat lagun inguratu ziren bertara, nahiz eta askok azken orduarte ez genuen ezer jakin, nonbait azken orduko gauza izan zen Aranon kantatzea.

Xabier Legarretak



ARTXIBOKOA

Xabier Legarreta.

bere lehen saioa Tuteran kantatu zuen eta hirugarrena eta ligako azkenak joan den ostiralean Zizuren izan zuen.

BAZTAN

Baztandarren Biltzarrek kartel lehiaketa antolatu du

Kartelak aurkezteko azken eguna, apirilaren 5a izanen da

Ainara Mindegia

Baztandarren Biltzarra Elkarteak 2002ko ospakizuna iragarriko duen kartel lehiaketa antolatu du; partehartzaileak ondorengo oinarriak errespetatu beharko dituzte:

1. Kartel guztietan "BAZTANDARREN BILTZARRA 02. ELIZONDON UZTAILAREN 21EAN. ESKUARAK BATZEN GAITU" testua agertu beharko du.

2. Neurriak 50 x 70cm.koak izan beharko dute.

3. Partehartzaileak Offset sistemak onartzen dituen teknika eta kolore guztiak erabil ditzake.

4. Informatikako euskarrian egindako kartelak, disketteak lagunduta joan daitezke, irabazle suertatuz gero hobe inprimatu ahal izateko.

5. Kartelgileak kartel bakoitzaren gibeletan aldean lema bat jarri beharko du.

6. Kartelarekin bate-



ARTXIBOKOA

Baztandarren Biltzarrean 80ko hamarkadan egindako argazkia.

ra gutun azal itxi bat eman behar izanen da, kanpoko aldean kartelaren lema, eta barnekoan, egilearen datuak eramanen dituena.

7. Lehiaketa honetara aurkeztuko diren kartelak apirilaren 5ean goizeko 12ak baino lehen BBEren esku egon beharko dute. Helbidea: Baztandarren Biltzarra

Elkartea, 22 PK 31700 Elizondo

8. Uztailaren 21etik aintzinet, partehartzaileek beren kartelak berreskura ditzateke.

Epaimahaia diseinu grafikoan bi aditu, Baztango bi artista eta Baztandarren Biltzarrako bi kidek osatuko dute. Saria apirilaren 5etik aintzinet ezagutzera emanen da.

Irabazleak 450 euro jasoko ditu. Era berean epaimahaia erabaki dezake batere kartelik ez aukeratzea. Lehiaketa irekia eta zabala da, nahi adina lan aurkez ditzakete partehartzaileak. Baztandarren Biltzarraren egunean banatuko dira sariak bazkalondan egiten den jaialdian.

FLASH

Mendigoizaleen irteerak

Baztango Mendigoizaleek martxoaren 24an Iraperriara egingen dute irteera. Aste Sainduan ez da ateraldirik izanen eta Apirilaren 7an Xorroxinera joanen dira. Baztan Ikastolako Gazte Mendigoizaleek martxoaren 24an Mugairi - Ubon - Mugairi ibilbidea egingen dute.

Oinarritzko Osasun Eremuko zuzendaria

Elizondoko Oinarritzko Osasun Eremuko zuzendari berria Mari Carmen Elizainzin medikua izanen da. Arizkongo medikua den Miguel Yabar Maisterrena izan da postua utzi duena.

Lameriñas argazki erakusketa

Baztan Ikastolako parkeko egoitzan, Juanito Lameriñas-en argazki erakusketa egingen da, martxoaren 28tik apirilaren 7ra. Haurrendako jolas parkea izanen da. Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak antolatu du eta behin behinako ordutegia 11:30etatik 13:30etara, eta arratsaldean 6etatik 8etara izanen da.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostetua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte
ELIZONDO
☎ 948 581807 • 948 581853

LARRALDEA
SAGARDEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • **LEKAROZ**
☎ 948 452121

ARROPA DENDA
Gazteendako era guztietako arropa
Lanerako arropa

BAZTAN

Kinto besta aunitz Aste Santuko egunen inguruan

Badira oraindik emakumeak onartzen ez dituzten kintoen taldeak

Rakel Goñi

Kinto Bestak ospatzeko ez dago data zehatzik, kintoek egoki iruditzen zaien eguna hautatzen dute bazkaria egiteko. Dena den, Aste Santuko oporren inguruan mugimendu handia somatzen da. Lortu ditugun Kinto Besten datuak aurkituko dituzue jarraian. Martxoaren 23an: 1956an sortutakoak Lekarozko Hiru Iturri ostatuan bilduko dira. 1926an jaio zirenak Elbeteko elizan izanen dute meza ordu batean eta ondotik bazkaria Galartzan. 1974koan 12etan bilduko dira Arraiozko Arizti elkartean.



1962ko kinto besta iragarriko duen kartela. Martxoaren 23an Elbeteko Ostatuan egingen dute bazkaria.

an "animatzen hasteko". Ondotik bazkaria izanen da Eskisaroi jatetxean. 1980koa Iruritako Olari jatetxean ospatuko da. Apirilaren 6an 1939an jaiotakoak (60ko kintoak) ordu batean meza izanen dute Almandozen, ondotik Beola jatetxean bazkaltzeko. Izena Beolan eman daiteke. Apirilaren 13an 77an sortu zirenak, bazkaria izanen dute Lekarozko Sagardotegian. Apuntatzeko epea apirilaren 7an akituko zaie. Besta ederra egingen dute aunitzek euren Kinto Besta ospatzen duten egunean. Kasu eman edaten denarekin.

ELASH



Osasunako Peña berria

Elizondon Osasuna Futbol Taldeko zaletuen peña osatu nahi dute. Martxoaren 31 arte eman daiteke izena, Antxitonea Trinketean. Eman beharreko datuak izena, abizena eta nortasun agiriaren zenbakia izanen dira. Lehendabiziko bilera apirilaren 6an egingen da arratsaldeko 5etan.

Amaiur eta Erratzuko haurrendako jostalekua

Amaiurren eta Erratzun laster haurrak jostatze-ko kolunpioak jarriko dituzte. Udalak 3.005 euro onartu ditu herri bakoitzarentzat haurren jolasak aldatzeko.

Harrobiei buruzko solasaldia

antolatu du Arizkunean, martxoaren 22an, 20:00etan, Erdizen Aldeko Batzarrak, Gurelur-eko biologo batekin.



Udalak abenduan sariak banatu zituen

Baztanen izena bailaren mugetatik at ezagutzera emateagatik, Udalak oroigarri batzuk eman zituen abenduan. Sarituen artean Juanito Lameriñas argazkilaria, Zesareo Soule eskultorea, Baztango eskuba-

loi taldeko neskak eta Laborra eskultorea izan ziren. Udal ordezkariak ez ziren oroitu, komunikabide batzuei sariak banatuko zirenen berri ematen, eta horregatik ez datzuegu abistearen berri lehenago eman.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

Gierreserena
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak

ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

SARA

Bertsolari txapelketako finalerdia Omordian jokatu da igandean

Iparraldeko eta Nafarroako sei bertsolari ariko dira

Aña Mari eta Fred

Nafarroa eta Iparraldeko bertsolari txapelketako finalerdietako bat Sarako Omordian egingen da martxoaren 24an, arratsaldeko 4etatik aitzin. Sei bertsolari izanen dira, Iparraldeko Ligatik sailkatu diren Sustrai Kolina eta Txomin Ezponda alde batetik eta Nafarroako Ligatik etorriko diren bertze lau. Olhain ikastolak antolatuta, goizeko 11:30etan aperitifa eskainiko da eta 12:30etan bazkaria. Izen ematea: 0559542683 (Arantxa) edo 0559939302 (Sylvie).

Zazpiak Bat-en gaurdia

Larunbat huntan, martxoaren 23an, Zazpiak Bat dantza elkar-teak gaurdi goxo bat prestatua du Omordian. Arratseko 7etan, ikusgarria eskainiko da eta zortziak eta erdietan afaria. Izenak emateko deitu 0559542067 (Maidier) edo 0559595756 (Odile). Helduek 16 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 8 euro.

Internet-en besta asteburu honetan

Iparraldeko Herri osoan, Internet-en besta antolatua da asteburu huntako. Herriko eskolek, turismo bulegoak eta liburutegiak herritarrei ateak zabaltzen dizkiete, Internet urrik eza-



ARTXIBOKOA

Bazko Astelehenez, XIX: Euskal Herriko Idazleen Biltzarra egingen da herriko kiroledegian. Aurten ez da mintzaldirik izanen, baina literatura, musika edo artea maite dutenek gogoaren asetzeko aski izanen dute.

gutze. Ortziralean eta larunbatean, eskola publikoa eta San Josepe eskolan goizeko 9ak eta erdietatik eguerdi arte eta arratsaldeko 2etatik 5ak arte; larunbatean bakarrik Turismo Bulegoan edo liburutegian, goizeko 9etatik 12ak arte eta arratsaldeko 2etatik 6ak arte.

Saraka Izarra Kostaldeko txapelketan

Joan den martxoaren 10ean, Saraka Izarra Errugbi taldeak Kostaldeko txapelketaren bigarren faseko azken partida jokatu du Aniamaniako zelaian. Saratarrek baitezpada irabazi behar zuten aitzina joateko eta hala gertatu da. Alabainan, 21 eta 13 irabazi dute Saint-Jean-de-Marsacq-en

aurka, beraien helburua lortuz.

Ondorioz, heldu den martxoaren 31n bertze neurketa bat jokatu dute (lerro hauen idaztean, oraindik ez dakigu noren kontra...) eta hori irabazten badute, Kostaldeko txapelketako finalerarik bat jokatze eskubidea izanen dute. Horretaz gain, garaipen horrek Frantziako txapelketan aritzeko baimena emanen lieke. Galdu ezker aldiz, aurtengo denboraldia hortan geldituko litzateke. Erantzuna martxoaren 31n.

Euskal herriko Idazleen Biltzarra Bazko Astelehenez

Urte guziz bezala, bazko astelehenez, Euskal Herriko Idazle-

en Biltzarra ospatuko da Herriko kiroledegian. Aurtengo 19.a izanen da eta apirilaren 1ean gertatuko da. Egun guzian beraz, 9.30etan hasirik, liburu eta disko egileekin mintzatzeko parada izanen dute bertara hurbilduko diren guziek. Bertalde, bi urtetarik egingen den bezala, bi egile ohoratuak izanen dira egin duten lanarengatik: Marijane Minaberry eta Miguel Angulo. Horretaz gain, erakusketa batzu ere ikusten ahalko dira, hala nola Gaëlle Merch-en margoak, bertzeak bertze.

Berritasun nagusiena da aurten ez dela mintzaldirik izanen. Hala ere, literatura, musika edo artea maite dutenek gogoaren asetzeko aski izanen dute la ez da dudarik.

ZUGARRAMURDI

Titiriteroen Topaketa apirilaren 13 eta 14an

Margari eta Koro

Zugarramurdin bi urtetatik behin egingen den "Eskual titiriteroen topaketa" apirilaren 13 eta 14an egingen da. Bi egunetan 10 talde arituko dira. Igande arratsaldean Ruper Ordorikaren kantaldia izanen da, bazkariaren ondotik. Aitzinago emanen ditugu taldeen izenak bere ordutegiekin.

Bertso Liga

55 lagun bildu ziren Martxoaren 2an Azketa jatetxean egin zen Nafarroako bertso ligako saioan. Bittor Elizagoien, Joxema Leizeta, Julen Zelaieta eta Josetxo Etxenike aritu ziren, Txomin Amorena gai-jartzailearekin. Gisa huntako ekitaldi gutti egingen dira herrian eta jendea arras gustura egon zen.

Janari Bankutik eskerrak

Nafarroako Janari Bankutik eskerrak igorri dituzte urdazubiar eta zuamurdiarrei berriki egin den bilketan 533 kilo janari bildu dituztelakoz bi herrien artean. Azpimarratu nahi izan dute bildu den guztia arras kalitate onekoa izan dela.



SENPERE

Kirolzelaian 400 jartoki eta aldagela berriak eraikiko ditu herriko-etxeak

Citroenek Landagoienen egin du bere publizitate berria

Franck DOLOSOR

Herriko etxeak eta SPUC kirol batasunak egin dituzten hainbat bilkuren ondotik deliberatu da jartoki, aldagela eta lokala berriak eraikiko direla herriko kirolzelaian.

Aspalditik galdegiten den proiektu hau ez da bakarrik errugbizaleentzat eginen, lasterka ibiltzeko pista, pisuak botatzeko lekua eta zezenketak ospatzeko eremua ere prestatuko direlako. Denbora berean, 400 presuna hartzen ahalko dituzten jartokien azpian aldagela berriak prestatuko dituzte. 488.000 euro gostatuko da proiektua baina senpertarrek ahal bezain guti paga dezagun, kontseiluak diru-laguntzak galdetu ditu jantxo su-prefetura eta Pabeko Kontseilu nagusi

sian gastuen erdia berderen bere gain har dezaten.

Poesiaren Eguna apirilaren 7an Oxtikenean

«Hatsaren Poesia» izenburuarekin, olerkiak euskaraz idazten duten Hego eta Ipar aldeko idazleen artean Poesiaren Eguna ospatuko da Senpereko Oxtikenean apirilaren 7an. Eguerditan, 80 bat idazleen olerki bildumaren aurkezpena eginen da. Ordu batean bazkaria eta 3etan poesi-ekitaldia, hor izanen diren olerkariak.

Nork edo nork nahi baluke, datorren urteko olerki bilduman parte hartu bidal ditzala helbide huntara: *Hatsa Elkartea; Oxtikenea; Fr 64310 Senpere* edo *hatsaelkartea@aol.com*.



STUDIO DE LA NIVELLE

Amorroin kofradiaren bestak lagun frango bildu zituen martxoaren 3an.



STUDIO DE LA NIVELLE

Ihaureri euritsua ospatu zen otsailaren 23an bainan halere Zantantzar jutatua izan zen. Hendaia-ko Luixa taldea, Hazparneko joaldunak, Zigante, Kaxkarrotak eta Zirikatatzekoak alegeratu zituzten gure bazterrak moztzeko lehiaketa batekin gainbera aurten.

FLASH

Ruwel lantegiaren hestea

Ruwel lantegiaren hestea kezkak sortu ditu herriarrien artean ere hiru Senpertar ari direlako hor lanean. Baionako merkataritza auzitegiak zuzenketa judizialean ezarri zuen Ruwelen kudeaketa. 6 hilabetez ez dira 350 langileak kanporatuko bainan bada oraino kezkatzeko.

Lapurdiko Itzulua

Lapurdiko itzulua auto zoingehiagoka apirilaren 5etik 7rat ospatuko da. Kantiako 6 ornak aldi maiatzaren bigarren asteburuan eginen dira 19. Herri-Urrats besta bezala.

Citroen autoen iragarkia Landagoienen

Citroen markako auto berriaren iragarkia Landagoienen egin du berriki publizitate agentzia batek. Laster prentsan agertuko dira beraz aintzira kaskotik ageri diren bista xoragarriak, Lapurdi barnealdeko mendiak eta Larrun.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA

Ibardingo Lepoa

☎ 948 631209



SALMENTA
MARKA GUZIEN
KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA

AZKAIN

Maiaren Etxeberriren omenaldia hunkigarria izan zen

Harri zizelkatu bat eskaini eta lehen «Martxingolaz» ohoratu zuten

Ihintza, Angela eta Eneko

Sorpresa ederra antolatua izan zitzaion Ikasleak dantza taldeko zuzendari ohiari. Maiaren Etxeberrik joan den irailean utzi zuen elkartearen zuzendaritza, 30 urtez bihotz onez lan egin ondoren.

Zaila izan zen Maiareni deus erran gabe ikusgarri horren antolatzeko. Beñat Etxeverri zuzendari berria, eta taldeko dantzari batzu izan ziren prestakuntza horren eramaile nagusiak. Behar zituzten lehengo eta oraiko dantzariak aintzinetik bildu ikuslariaren muntatzeko alde batetik eta Azkaindarrak egun hortan plazarat hurbilarazi bertze aldetik, hori dena sekretu haundienean, sorpresa osoa gelditzeko. Hortarako hilabete behin mutxikoak plazan egiten baitiren egunean finkatu zuten hitzordua, egunkarietan hitz erdiz zerbait berezi gertatuko zela aitortuz, eta artetik Patxi eta Batbiru

taldeak plaza alaituko zuela.

Txalapartaren aholtsak eman zuen igande goizeko doinua, azken hamar urteetako Ikasleak taldeko dantzariak beren gordalekutik atera zirelarik denak lerroan, pilota plazaraino ixilik aintzintatzeko. Giroa azkarra zen eta Maiaren Etxeberrik ez zuen luzaz bere emozioa gordetzen ahal.

LEHEN ALDIKOTZ BETTELUREN FANDANGOA EMAN ZUTEN DANTZARIEK

Bazuen aspaldi Maiaren Etxeberrik amesten zuela. Martxoaren 10ean gertatu da: Ikasleak taldeak Betteluren fandangoa eskaini zuen Herriko plazan. Betti Bettelu izan zen Lapurdiko dantzari hats berri bat ekarri ziona. Fandango berezi bat asmatu zuen, koregrafia osoarekin. Ikasleak dantza taldeko ereka le izan zen luzaz eta geroztik, Azkaindar dan-

tzariak ikasia bazuten ere sekulan ez zuten egiazko Betteluren fandangoa Plaza erdian eskaini. Maiaren omenaldia baliatu zuten beraz gazteek amets horren gauzatzeko.

«MAIALEN MARTINTXO BILAKATU DA»

Ikusgarriaren ondotik eskaintzen tenorea etorri zen. Dantzariak harrizko zizeldura bat eskaini zioten, milesker haundi batekin grabatua erdian. Martintxo kantu elkartekoek ere beren lehen «Martingola» eskaini zioten (Martintxoren gibeletik lanegiten dutenen ohorezko titulua, xingola urdin batez osatzen dena). Elkarteko zuzendariak Maiaren lan luzea azpimarratu zuen erranez Martintxo mitologiako pertsonaia bezala, Maiaren Basajauenen eremuetan izan zela jakitatearen jabetzela, eta ondotik altxor horien zabaltzeko: «Maiaren Martintxo bilakatu



AMAI JORAJURIA

Maiaren Etxeberrik Ikasleak dantza taldeko zuzendari ohiaren omendu zuten.

da». Ondotik aperitifa luzea eta jendetsua izan zen, kantu bat ere elgarrekin kantatua izan zen, Maiaren ohoretan asmatua.

Mus Xapelketa

Frantziako mus xapelketako lehen itzulitiki

hiru bikote Azkaindar atera ziren Biriaturko xapelketan parte hartzeko: Zazet-Daguerre, Astigarraga-Dabadie, eta Salha-Tapia. Handi, Zazet-Daguerre eta Astigarraga-Dabadie baizik ez ziren ateratu, Xaia ostatuko kanporaketan parte hartzen ahaliko dute. Finala Arrangoitzen iraganen da Bazkoz.

Errubian Azkainek galdu du berriz ere

Narrosen kontra 21-13 galdu dute Azkaindarrek herrian berean. Kalifikatzeko gero eta xantza gutiago dute oraitik aitzina, denak ez badira galduak ere.

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27


OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hiritzaintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • **LESAKA**



EZKONTZAK

Roberto Txoperena Iturbide eta **Miriam Saldias Iribarren**, Igantzi eta Urrozkoa, martxoaren 9an.
Henri Alvarez eta **Hélène Herjean**, Sarakoa eta Plougin-ekoa (Frantzia), otsailaren 16an.



JAIOTZAK

Nerea Zabaleta Artola, Leitzakoa, martxoaren 5ean.
Maiane Sanchez Peruarena, Berakoa, martxoaren 2an.
Aisha Oskariz Urtsuegi, Elizondokoa, otsailaren 16an.
Nerea Barberena Urrutia, Erratzukoa, otsailaren 21ean.
Naiara Zaldain Arribillaga, Amaiurkoa, martxoaren 1ean.
Maialen Lasserre, Sarakoa, otsailaren 24an.



HERIOTZAK

Iluminada Fermina Irugarai Irigoien, Gartaingoa, martxoaren 2an, 91 urte.
Julian Goienetxe Matxikote, Igantzikoa, martxoaren 9an, 89 urte.
Visitacion Elizalde, Sarakoa, otsailaren 9an, 88 urte.
Albert Buchet, Sarakoa, martxoaren 5ean, 88 urte.
Julian Goienetxe Matxikote, Igantzikoa, martxoaren 9an, 89 urte.
Jose Larretxea Grajirena, Arantzakoa Beran, martxoaren 12an, 86 urte.

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 63,10 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.

MANU
AKUTXILATZEAK
BARNIZATZEAK
 Aurrekontuak loturirik gabe
 ☎ 948 630 258
 ☎ 656 411 075

ARANTZA
ZYRGINDEGIÀ
Jose Miquel Errandonea
Klase guztietako
zurgin lanak
 Osifa auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
 Kontsultarako eskatu ordua
 ☎ 948 580 975
 Jaime Urrutia 42-2.D
 ELIZONDO

GANIX
Tailerrak
 Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

BOAN
TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 ☎ 948 63 06 23 • BERA

HARRI NATURALA
 ATERATZEA eta LANTZEA
 Antzinaldeak
 Angeluak
 Orma antzinak
 Leioak
 Ateak
 Arkuak
 Pilareak
 Tximiniak
 Erlaizak
 Moldurak
 Zokaloak
 Hilarriak
 Marrazkiak
 'Abujardadoa' Mazizoa
 Zahar antzekoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

DROGUERIA MOLINERO
 • DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
 2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
 10 minututan zuk nahi duzun kolorea
 Profesionalentzat prezio berezia

I CHE
 GESTI NES F NE ES EL N TE, S.L.
TANATORIO BAZTANDARRA
 Santiago 52
 ELIZONDO
 Baztan, Bertizarana,
 Urdazubi eta Zugarramurdin
 24 orduko zerbitzua tanatorioan
 eta etxean prezio guztietan
 ☎ 900 704704
 ☎ 948 581959

TXIRRINDULARITZA

Telco'm-Ordoki txirrindulari talde afizionatua Arizkunen aurkeztu zen

Jon Bru beratarra gabe, zail izanen dute iazko 13 garaipenak lortzea

Telco'm-Ordoki Liko-reak afizionatu mailako txirrindulari taldearen aurkezpenean egin zen martxoaren 2an Arizkunen. Iaz taldeburua izan zen Jon Bru beratarra falta izanen dute Telco'm-Ordokin, Portugalgo La Pecol talde profesionalarekin ari baita denboraldi honetan. Luis Alejandro Moyano nafarra izanen da aurreko taldearen oinarria, joan den urtean lasterketa batzuk podiumean akautu ondotik. Dena den, Juan Salas zuzendariak ez du baztertzeko berriz edozein aitzineko postuetan ibiltzea «gure taldean kirolariak baino lehen txirrindulariak pertsonak direlako».

Joan den urtean 13 garaipen lortu zituen Telco'm-Ordoki taldeak eta zaila izanen da kopuru hori berdintzea. Jon Bru bostz garaipen eskuratu zituen, berriz Eibarko Balentziaga Memorial famatua; Javier Bielsak lau lasterketa irabazi zituen, Huescako 50. San Lorenzo Saria tartean; Luis Moyanok bi aldiz irabazi zuen eta Matias Cagigas eta Carlos Manchok behin. «Aurreko ez da errega izanen hori berdintzea, baina gure helburua txirrindulariak egiten segitzea da» dio zuzendariak.

Aurreko berriz helburu polita izanen dute, Javier Bielsa taldekideak



Ezker eskuin, goitian: Angel Llano, Mikel Etxarri, Xabier Zarranz, Ramon Oblanca eta Alfonso Garcia; **erdiko lerroan,** Francisco Gutierrez, Juan Carlos Gutierrez, Daniel del Cerro, Iraitx Goñi eta Luis Etayo; **behean,** David Etxabarri, Javier Arrieta, Nacho Andetxega, Hector Etxabarri, Iker Longo eta Luis Arrieta. Juan Salas zuzendaria, Manolo Lopez zuzendari laguntzailea, Iban Delgado eta Jon Salas mekanikoekin batera, Telco'm-Ordoki liko-reak taldea osatzen duten txirrindulariak.

orduaren errekorra egin nahi baitu. Huescako txirrindulari bostz egunez konzentratua egon da Mallorcan eta eta Toni

Cerdá, Espainiako pistako selekzionadoreak marka hori egiteko aukera duela erran du. «Abiadura punttu hori

badu, orain fondoan hartzea gelditzen zaio, baina ez gara itsu-itsuan aterako» zioen Juan Salasek.

FLASH



Asier Olaizola

pilotari goizuetarrak ezin izan du hirugarren txapela jantzi. Patxi Ruizekin bikote eginez, finala bitarteko partiduko guztiak irabaziak zituen, baina martxoaren 10ean jokatuak azken partidatik gehiago izan ziren Xala eta Lasa III. Goizuetarrak urduri hasi zuen partidua eta Lasaren partidua bikaina medio abantaila kozkorra (7-17) hartu zuten gerora txapeladun izanen zirenek. Olaizola zaharrenak pilotakada gogorra hartu zuen orduan buruan –bortz puntu behar izan zituen–, baina ordutik aurrera hasi zen gehixeago jokatzeko, bikain aritu zen Patxi Ruizekin laguntzarekin. Gorriak 19-21era hurbildu ziren, baina ezin izan zioten buelta eman markagailuari. Azkenean 19 eta 22 irabazi zuten Xala eta Lasak. «Pilotakada lehenxeago hartu behar nuen, esnatzeko» esan zien umorez komunikabideei Olaizolak. Dena den, goizuetarrek harmailetan jokatu zen beste partida irabazi zutela esaten ahal da. Iparraldetik 500 bat lagun etorri ziren Xala animatzera, baina horretaz gain, Ruiz eta Olaizolari oihu eta txistu eginez ibili ziren, itsuski. Goizuetarrek, aldiz, guttiago izan arren, berea animatu zuten eta areioak ere txalotu zituzten partida bukaeran.

PILOTA

Zabaleta-Ripa-Santxotena irabazle III. Paxaka txapelketaren finalean

Oizko Mendiola anaiei eta Mindegiairi 9-7 irabazi zieten martxoaren 2an



Iruritako Zabaleta, Ripa eta Santxotena us-tekabean irabazi dute Laxoa Elkartek hiru-garren urtez antolatuta-ko paxaka txapelketa. Martxoaren 2an jokatu zen finala eta iruritarrek 9 eta 7 irabazi zieten Oizko Mendiola anaiei eta Mindegiairi. Emaizta ustegabekoa izan zela aipatu dugu, izan ere le-hendabiziko fasean, oiz-tarrak nagusi izan ziren beraien multzoan eta iru-ritarrak laugarren mul-tzo berean. Baina fina-lerdietan iazko txapel-dunei irabazi ondotik, aurtengo txapela mere-zimendu osoz jantzi du-te Zabaleta, Ripa eta Santxotena. Partidua hagitz berdindua joan zen bosnako berdinke-ta bitarte. Iruritako hiru-koteak bi joku segidan egin zituen (7-5), baina oiztarrek berriz ere zaz-



EDURNE ZUBIETA

Txapeldunak eta txapeldunordeak, beraien sarietara.

pina berdintzea lortu zu-tzen. Azken bi jokuetan Iruritarren alde erori ziren eta honela eraman zu-ten txapela.

Finalaren aitzinetik hirugarren posturako lehia jokatu zen irurita-rraren artean eta hemen ere 9-7 nagusitu ziren

Alfaro, Prim eta Etxan-di, joan den urtean txapeldun suertatu ziren Urrutia anaia eta Eli-zaintzinen kontra.

Inaxio Perurena

Bi aldiz jaso zuen 190 kiloko harri zilindrikoa esku bakar batez, eta marka berria ezarri zuen, martxoaren 3an berak Lekunberrin egin-dakoa orain arte ez bai-tzuen inork egin 18 ur-terekin.

Abel Barriola

2003. urteko martxoaren 1etik aurrera Aspe enpresako pilotaria izan-nen da leitzarra. Lau ur-terako kontratua eskai-ni dio Aspe. «*Bi eskain-tzak aztertu ditut, Ase-garce eta Asperena, eta puntu guztiak begiratu-z, Aspekoak gehiago kon-bentzitu nau*».

Juan Carlos Garro

BH Coronas taldeko txi-rindulari beratarak Espainiako mendi bizikle-ta denboraldia hagitz on-gi hasi du. Martxoaren 3an, Avilesko XI. Sari nagusian gailundu zen, Espainiako Koparako baliagarriak diren zazpi probetatik lehendabizi-koan. Orbeako Ludovic Dobau frantziarra izan zen beratarren are-rorik gogorrena.

Jon Bru

Ez du nolanahiko mar-ka egin La Pecol talde-ko txi-rindulari berata-rrak, profesionaletan egindako bigarren las-terketan lehendabiziko garaipena lortu baitu. Otsailaren 23an lortu zuen garaipen hori, Por-tugaleko Seixal klasika irabazita.

Adin guzietako emakumeendako pala goma txapelketa antolatu du Belatek

Apirilaren 3an bukatuko da izena emateko epea

Apirilaren 3an buka-tuko da emakumeei zu-zendutako eta Belatek lehendabiziko aldiz an-tolatutako pala goma txapelketan izena ema-teko epea. Txapelketa liga moduan antolatu du Belate elkarteak eta Bor-tzirriak, Malerreka, Ber-tizarana, Baztan eta in-

guru adin guzietako emakumeei zuzendua da. Izan ere, 7-8 urteko benjaminetatik hasi eta 22 urtetik aitzinerako helduak bitarte, kate-goria ezberdinetan (ale-binak 9-10 urte, txikiak 11-13 urte, gazteak 14-18 urte, kadeteak 19-21 urte) parte hartzeko au-

kera izanen dute nahi duten neska bikoteek.

Partiduak ortziral arratsaldetan, larunba-tetan edo igandetan jo-katuko dira, apirilaren 13tik maiatzaren 12ra. Erran bezala, emaku-meek apirilaren 3a bai-no lehen eman behar-ko dute izena, horreta-

rako pilota eskoletan eta berte lekuetan utziak diren orriak betez.

Informazio gehiago jasotzeko, baita izena emateko edo berte xe-hetasunetarako ere 948 592139 edo 948 592159 telefonoetara deitzea aski da, arratseko 8 eta-tik 10etara.

AGENDA egunez egun

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Martxoaren 28tik apirilaren 7ra Juanito Lameriñas-en argazki erakusketa Baztan Ikastolako parkeko egoitzan. Haurrendako jolas parkea ere izanen da. 11:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 20:00etara.

ZINEA

LEITZA

Martxoaren 22an 22:30etan La Fabulerix Destin d'Amelie
Martxoaren 24an 19:30etan La Fabulerix Destin d'Amelie

BERTSOLARITZA

SARA

Martxoaren 24an Nafarroa eta Iparraldeko bertsolari txapelketako lehen finalerdia Omordian, arratsaldeko 4etatik aitzin. Olhain Ikastolak antolatua, goizeko 11:30etan aperitifa eta 12:30etan bazkaria. Izen ematea: 0559542683 (Arantxa) edo 0559939302 (Sylvie).

GAUALDIA

SARA

Martxoaren 23an Zazpiak Bat Elkarteak gaualdi goxo bat prestatu du Omaidian. 19:00etan ikusgarria eta 20:30etan afaria.

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Martxoaren 24an Baztango Mendigoizaleek Iraperriara eginen dute irteera.
Apirilaren 7an Xorroxinera joanen dira.
Martxoaren 24an Baztan Ikastolako Gazte Mendigoizaleek Mugairi-Ubon-Mugairi ibilbidea.

LEITZA

Martxoaren 24an Txamantxoia eta Lapakizara (Belagoa-Zuriza).

ttipi-ttapa • agenda praktikoa

TELEBISTAKO TXOKOA



MUSIKA, DANTZA ETA IRUDI KOLORETSUAK

Aste Santuan programazio berezia Ttipi-Ttapa telebistan

Ttipi Ttapa telebistak martxoaren 25etik apirilaren 7ra oporrak hartuko ditu. Eguneroko martxa eten eta programazio berexia ikusteko aukera izanen duzue; musika, dantza eta irudi koloretsuak. Egutero saio bereziak ikusi ahal izanen dituzue.

ONDDO ETA ZIOREK

Musika maite duzuenentzat Onddo eta Ziorek taldeek Beran eskainitako kontzertuaren grabazioa entzun eta ikusi ahal izanen duzue. Beste aldetik, gorputza mugitzeko dantza pixkoteginez, Gure Txokoa eta Eraiki dantza taldeen emanaldiak izanen dituzue ikusgai zuen pantailetan.

HERRIZ HERRI BEREZIAK

Orain arte asteazkenetan, Maleirreka eta Bortzirietako txoko eta kontakizun, harrigarri eta interesgarriak ikusi ahal izan dituzue, Herriz Herri saioan. Aste Santua girotzeko asmoz, Herriz Herri bereziak izanen dituzue ohiko berri emaileen solaldiekin.

Bi asteko opor eta programazio bereziaren ondotik, apirilaren 8an ohiko programazioarekin itzuliko gara. Beraz, badakizue: oporretan joan behar baduzue ongi pasatu. Etxe eta herri zain gelditzen zaretenendako, oroitu Aste Santuko egutetan ere zuekin izanen dela Ttipi-Ttapa telebista.

DISKAK



«Arditurri»

Juan Mari Beltran

ELKARLANEAN

Bere diskoa definitzeko orduan, lanaren izenburua irakurtzea besterik ez dagoela dio Juan Mari Beltranek barruan zer dagoen ulertu ahal izateko. Arditurri. Gogoaren bidezidorretatik, halaxe bataiatu du bere lehendabiziko bakarkako lana bi arrazoiengatik batez ere: Oiarzun bailarako Arditurri aldean mamitu zelako egitasmoa, eta gogoaren bidezidorretatik Beltranek bihotzak eskatzen zion hori gorpuzteko aukera izan duelako.

Aspaldiko lagun musikariez inguratua dago diskoan, besteak beste, Tapia eta Leturiak, Joan Goikoetxeak eta Maddi Oihenartek parte hartu dute. Suso Saizen produkziopean, nafarrak tradizioan induskatzen duen diskoa osatu du. Bertan nahastu ditu txalapartaren doinuak euskal ondarearekin hertsiki loturik dauden beste hainbat tresnekin.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Otsailaren 22tik martxoaren 1erako prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 45,00 €

Zerri gizona
(95-100): 1,06 €

Zerramak:
0,51 € kilo, bizirik.

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,34

1.koa 3,22

2.koa 3,10

Urruxak: Pta/kg. Kanal

Extra 3,40

1.koa 3,28

2.koa 3,16

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Mestizoak: urruxak

234,39 € eta idixkoak

222,37 €

Nabarrak: urruxak 216,36 € eta idixkoak 192,32 €.

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,01/3,07

Zaldi-behorrak: 1,92/1,98

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,10/5,40

8-10 kilokoak: 4,45/4,75

JAKIN BEHARREKOAK



Clown-aren begirada zabal eta sakona

Clown-a heldu da. Egitarau berria antolatu dugu Beran, aurten bi aukera azalduz. Udaberriko **Topaketak**: egun bateko saioak, apirilaren 14an, maiatzaren 11n eta ekainaren 16an, clown-arekin harremanetan hasteko. Eta Udaldian **Ikastaro Trinkoa**: zazpi egun, uztailaren 22tik 28ra, clown-antzerkian murgiltzeko.

Zein eta zer da Clown-a? Bere aitzinekoak gizarte primitiboen errituarekin agertzen zaizkigu, pertsonai baztertuak, chamanen ondoan, sakratuarekin jostatzen. Erdi Aroan Erregeen Bufoia ezagutuko dugu eta ihauteiak ere fun-

tzio berberarekin. Gizarte modernoan antzerkian lehen (Inglaterra) eta zirkoan gero ageriko da clown-a, pailazoa, rustikoa... Oreka eta desoreka tartean gizarte eta mundua auzitan paratzen ohi duen pertsonaia da.

Arima inozokoa, naif, munduari begirada zabal eta sakonez begira, dena ukitzen zaio. Bere emozioek eta idurimenak gidatuta libre bizi da ametsak eraikiz, garaipena bilatu gabe. Bere egia gure egia da, bere jardura gure arimaren irri zintzoaren iturria.

Norberaren Clown-aren aurkitu nahian eskaintzen du-

gun aktibitatearen leloa da. Bakoitzak bere clown-aren jabea da. Aurkitu, ukitu, garatu proposatzen dugu antzerki-laneko inguruan, taldean, adierazpen ekintzaren bidez.

Mugabe•Clown egitarauaren bidez elkarlanean gabilta Zubietako AXURA, Berako BAI Teatro eta Lombezko LE BATA CLOWN Bidasoa Herrialdean clown-antzerkiko gunea sortzeko. Herrialdeko jendeari parte hartzeko animatzen diogu bereziki. Manitu Handi Sudur Gorridunak dioenez, **"irria negarra bezain medizina ona da"**. Ramón Albistur. BAI Teatro / Le Bataclown

LIBURUAK



Txokolatzeko Dinamita

Mikel Taberna

Susa

Mikel Taberna idazle beratarrak ipuinetik edo narrazio soiletik harantz doan lana burutu du Susak kaleratu berri duen Txokolatzeko dinamita liburuan; bertan unibertso oso bat eskaintzen du, bere txikitasunean zabal, neurri batean magikoa eta osoki gizatiarra.

Narrazioetako pertsonaiak Alkasoro herriaren inguruan bizi dira liburuiko kontakizun gehienetan, Lizarra eta Bidasoaldea arteko koordinaden testuinguruan. Kronologikoki, bi garaien

arteko mugan: baserriari estuki loturik dagoen garaia amaiar eta Gerra Zibilak markatuko duen garai berria. Narrazioetako pertsonaiek bi garaien artean ezagutuko dituzte hamaika gertakari xume. Eraldatzearen dauden bizi ezaugarrietan murgildurik daude, baina beren unibertso propioan jada ez ohiko gauzak gertatzen hasiak dira: soldaduen presentzia, fusilamenduak, erdara, Bidasoaldeko mugan bizitzearen eragina...

AGENDA egunez egun

TOPAKETAK

DONEZTEBE

Martxoak 23. Landa Eremuko Emakumeen V. Topaketa. Goizean ongi etorria, joaldunak, elizan diapositiba emanaldia, Trapatan dantza eta bazkaria. Artisauen erakusketa. Bazkaria eta dantzaldia Atsegin taldearekin. Xehetasun gehiago 14. orrian.

GAZTE JOKOAK

BERA

Martxoaren 23an. Muralak, pintxoak, proba konbinatuak, parodiak eta afari mundiala. Gazte asanbladaren eskutik.

MANIFESTAZIOA

LEITZA

Martxoaren 23an 18:00etan Maxurrenea kultur etxean bihurtzeko. Sinadura bilketa ere egingen ari da.

BATZARRAK

BERA

Martxoaren 22an Gure Txokoa elkartearen urteko batzarra, 19:30etan lehen deialdian eta 20:00etan bigarrenetan.

LESACA

Martxoaren 22an Beti Gazte elkartearen urteko batzarra, 19:30etan lehen deialdian eta 20:00etan bigarrenetan.

FARMAZIA

Martxoaren 18tik 24ra

Arantza, NARBARTe, Arizkun eta Goizueta

Martxoaren 25etik 31ra

Bera (Sanz, Bidasoa 14), Doneztebe (Mendia, Merkatarien K. 1), Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

Apirilaren 1etik 7ra

Igantzi, Sunbilla, Irurita eta Goizueta.

00-34 **948 63 11 88**

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisua salgai Legia,

BULDAIN

Leitzan pisuak salgai.
Borda lur eremuarekin salgai.
Baita bi pisu alokatzeko

☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

BERA. Etxea, lur eremuarekin salgai.
Herrian bertan.
Prezio interesgarria.

☎ 607 978656

SUNBILLA. Eraikitzen ari den etxea, lur eremuarekin salgai.

☎ 948 451841
☎ 607 978656

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, baje-erak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

DONEZTEBE

Pisu berriak salgai.
Azken bi etxeak.
Bigarren eskuko bi etxe salgai.
5.500 m²ko terreno eraikigarria,
2 txalet egiteko aukera.

BERA

SALGAI: Pisu batzuk, ostatur den bajera,
2 pisu Eztegarra Pasealekuan
☎ 607 978 656

53 - 3. ☎ 696 753 366.

BERA. Pisua salgai Ibaia karrikan 6-3 ezker. ☎ 948630 943 • 600204 665

BERA. Pisua salgai Agerran. Eguzkitsua, igogailua, soto eta kalefakzioarekin. Sukalde ekipatua, baje-erak in edo gabe. ☎ 948 630 885 • 625 705 556.

BERA. Pisua salgai Eztegaran. 3. solairua igogailuarekin. Eguzkitsua. 125m². Prezio onean. ☎ 948630251 • 679 774 971

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA edo ETXALARREN baserria errentan hartuko genuke. ☎ 699 526 512

BERA. Pisua errentan hartuko nuke, mobleztatu gabe. ☎ 646 273 220 (Bastian)

ETXEBIZITZAK

105 Errentan eman

ITUREN. Pisua errentan ematen da. ☎ 948 451 622

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LEITZA. Patxi Arrazolan baje-erak salgai. ☎ 948 510 504

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LEGASA. 450m²ko nabea errentan. ☎ 629 348 491

BERA. Bajera errentan emateko. Alkaiagako tunelaren ondoan. ☎ 678 445 490

GARAJEAK/LOKALAK

113 Erosi

Guttienez 3.000 m² dituen lur eremua erosiko nuke, Bera edo Etxalarren. ☎ 699 526 512

LANA

301 Eskariak

Elektronikan esperientzia

duena eskaintzen da edozein lanetan aritzeko. ☎ 617 543 863

Emakume arduratsua interna edo externa moduan lan egiten luke. (haurrak edo adinekoak zaintzen, etxeko lanetan...) ☎ 649 770 304

Berako emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. ☎ 948 630 985 • 696 561 158

Haurrak edo adinekoak zaindu, edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 626 852 937

LANA

302 Eskaintzak

BERA. Sukaldari laguntzailerak egun erdirako eta kamarrera jomada erdirako behar dira. ☎ 948 631 584

IRUÑEA. Neska euskalduna interna, behar da lanean aritzeko. ☎ 687 726 514

IRUÑEA. 25 urtetik gorako neska behar da gozotegi baste-ko obradorean lan egiteko. ☎ 948 220 618

BERA. Jatetxeko sukaldari eta zerbitzaria behar dira epe luzerako. ☎ 619 829 289

ALKAIAGA. Elektrizista behar da. ☎ 619 829 289

URDAZUBI. Sukaldari laguntzailerak behar da. ☎ 619 829 289

MOTORRA

501 Salerosketak

Pascuali markako traktorea salgai. ☎ 948 450 039

Pascuali markako traktorea 18 zaldikoa eta motoazada salgai. ☎ 948 397 072

Ford Fiesta salgai. NA-AD.



elektrizitate industrial

**Instalazio eta muntaia
elektrikoak**

Mantenimendua

Automatismoak

Iluminazioa

Amaur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)



EKIÑE MINDEGIA
aurtizarrak
apirilaren 2an 4
urte beteko
ditu. Zorionak
et lau muxu
familiaren
partetik. Aunitz
urtez.



**IRENE ZELA-
IETIA IRIARTE**
beratarrak
martxoaren 6an
18 urte bete
ditu. Zorionak
atta, ama eta
Julenen
partetik. ¡Ondo
pasa eguna!



ENEKO EIZAGIRRE
leitzarrak
martxoaren 8an
urtek intto.
Zorionak
guapo. Muken.



**CONCEPCION
UBURIA**
elgorriagarrek
martxoaren
5ean urteak
bete ditu. Zorionak
Lesakako
familia eta
bereziki iloben
partetik.



**NAIARA LARROKE
ALZUARTE**
martxoaren
12an 3 urte
bete ditu. Zorionak
eta muxu
aunitz amatxo
eta attatoren
partetik.



**JON SEIN
OSINAGA**
doneztebarrak
martxoaren 20-
an 8 urte beteko
ditu. Zorionak
eta muxu
handi bat atta,
ama eta Jai-
meren partetik.



**IANIRE
MARTIN
GOIAK** bi urte
beteko ditu
martxoaren
26an. Zorionak
Lesakako
familiaren
partetik.



**ANE ETXENIKE
APEZTEGIAK**
martxoaren
10ean urtea
bete du. Zorionak
gurasoen
partetik.




HAIZEAK
otsailaren 24an
4 urte bete ditu.
Zorionak eta 4
muxu handi
familiaren
partetik.



**XABIER ASTIZ
BARKILLA**
leitzarrak 3 urte
bete ditu
otsailaren 20an.
Zorionak eta
muxu guri bat
guraso eta
Iraitzen
partetik.



**MANEX
URUTIA
AZKARRAGA**
azpikuatarrak
otsailaren 20an
3 urte bete ditu.
Aunitz urtez eta
muxu bat aita,
ama eta fami-
liaren partetik.



**IRUNE ETA ITSASO
ELIZAGOIEN** etxalartarrek
martxoaren 29an eta apirilaren
4an, 9 eta 7 urte beteko
dituzte. Zorionak eta muxu
handi bat atta eta amaren
partetik.



**IANIRE
MARTIN GOIA**
martxoaren
26an 2 urte
beteko ditu.
Zorionak eta
muxu bat
Naiara, atta eta
amaren
partetik.



**JULEN
JUANKORENA
IPARRAGIRRE**
5 urte beteko
ditu martxoaren
12an. Zorionak
familiaren
partetik.



**IBON
IRASTORZA
URDANIZ**
beratarrak
martxoaren
30ean 2 urte
beteko ditu.
Zorionak ama,
atta eta Katti-
ren partetik.



**ARANTXA ETA MAIALEN
LARRAÑAGA CUEVAS**
martxoaren 13an bi urte beteko
dituzte. Zorionak eta besarkada
handi bat bixki politenei Maddi
eta Arantxaren partetik.



UNAI
narbartearrari
zorionak
apirilaren 5ean
urteak beteko
dituelako
familia baten
partetik.



**JESIKA
ESKUDERO
BALEZTENAK**
apirilaren 17an
12 urte beteko
ditu. Muxu
aunitz
familiaren
partetik.



**JESIKA
ESKUDERO
BALEZTENAK**
apirilaren 17an
12 urte beteko
ditu. Muxu
aunitz Aurtizko
familia eta
bereziki Eki-
ñeren partetik.



IONE pollitak
martxoaren 7an
8 urte bete ditu.
Muxu aunitz
maite zaitugun
guztien partetik.



**IANIRE
MARTIN
GOIAK**
martxoaren
26an 2 urte
beteko ditu.
Zorionak amatxi
Pili eta fami-
liaren partetik.
Muxu handia.



ARANTXA ETA MAIALEN
martxoaren 13an bi urte beteko
dituzte. Zorionak familiaren
partetik.



MANEXek
martxoaren
23an 7 urte
beteko ditu.
Zorionak!



**XABIER
MAYORDOMO
ALMANDOZ**
beratarrak mar-
txoaren 19an 6
urte bete ditu.
Zorionak atta,
ama eta berexi-
ki Beñaten
partetik.



**IRATI
GARAYAR
ARAK**
martxoaren
14an 5 urte
beteko ditu.
Zorionak
maitea, muxu
handi bat fami-
liaren partetik.



**JOANE
ETXEGARAI
TABERNA**
beratarrak
urtea beteko du
martxoaren
19an. Zorionak
Lesakako
familiaren
partetik.



**UNAI
LUBERRIAGA**
senperrak
martxoaren
17an 4 urte
bete zituen.
Muxu handi bat
amatxi eta
aitabiren par-
tetik. Ikusi arte.



**Ostargi
Optika**

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Hurrei errebisioa egiten zaie

Eta behar izanez gero...

**ERA GUZTIETAKO
BETAURREKOAK
DITUGU ZURETZAT**



I CHE
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**

DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guztietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 900 704704

☎ 948 637404



© 948630052 • Zalaia • BERA

**Alberto
RETEGI
abokatua**

Altzate 17
BERA

☎ 948 630 763



PLAN DE DIFUSION
DE LA CALIDAD EN
NAVARRA 2002

Informazio-formazio jardunaldia

GAIK

- Nafarroako Gobernuaren laguntzak 2002, konpetibitatea hobetzeko
- Kalitatea 2002 zabalkunderako Nafarroako Planaren xehetasunak
- Kudeaketara ereduak eta tresnak: zein dira eta zertarako balio dute
- Oinarrizko elementuak Kudeaketa Plan egoki batekin lan egiteko

Tokia: Bidasoako Enpresei Bideratutako Zerbitzu Zentrua / Alkaiaga - LESAKA
Eguna: 2002ko apirilaren 11 **Ordua:** 17:00ak

■ Bultzatzaileak



■ Laguntzaileak

Nafarroako Gobernua, Berako Udala, Lesakako Udala
Ttipi-Ttapa Fundazioa eta Cederna Garalur

Sarrera doan. Leku mugatua. Baieztatu joateko asmoa CEDERNA GARALURen
Arduraduna Begoña Iparragirre ☎ 948625122 e-Posta. bidaso.admon@cederna.es

ORDOKI ALTZARIAT

Estilo ugariko mobleak

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637780

NA-31780 **LESAKA**



MUEBLES METS

Sarrera BERAtik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

Larunbat arratsaldetan irekia



4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko



**Edozein logelara egokitzen
diren armario enpotratuen
aukera zabala**

